

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko azaroaren 23a • II. urtea • 42. zenbakia • DOAN BANATZEKO

Goienka2a

Euskal irudigileen
erakusketa
Arrasaten

PILOTA

Muru antzuolarra eta
Zabala eskoriatzarra
aurrez aurre Bergaran /10

JESUS LARRAÑAGA

Jose Maria
Arizmendiarieta
mintzagai /8-9



KOOPERATIBISMOA INDARREAN

Kooperatibismoaren Nazioarteko Eguna izan zen eguaz-tenean. Egun hori ospatzeko eta, bide batez, Jose Maria Arizmendiarietaren heriotzaren 25. urteurrena gogoratzeko —datorren eguenean, hilak 29, beteko dira 25 urte hil zela— ekitaldia izan zen Donostiako Teknologia Parkean. Besteak beste, Alfonso Gorroñogoitia Mondragoeko kooperatiba mugimenduaren sortzaileetakoa izan zen ekitaldian, baita Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidente Javier Salaberria ere. Azken haren ustez, kooperatibismoa gaur egun “inoiz baino baliagarriagoa” da. Ildo horretatik, Salaberriak adierazi zuen kooperatibismoak sistema ekonomiko globalizatuaren alternatiba moduan agertu nahi duela bere burua.

ASTEKO GAIA

Irailaren 11ren ondorioak geurean

Irailaren 11n, mundua aldatu egin zen. New Yorkeko dorre bikiei hegazkinez eraso zieten; ondorioz, Estatu Batuek Osama Bin Ladenen ehiza hasi zuten, eta

Afganistango gobernuari gerra deklaratu zioten. Irailaren 11ren ondorengo gertaerek geurean izan duten eraginez jardun dugu oraingo asteen. /2-3

OÑATI

**Zubillagako presa
eta zubia aztertu
nahi dituzte**

Zubillagako presari eta zubiari buruz azterlana egingo dute. Helburua da inguru horretan sortu ohi diren uholdeak saihesteko zer egin daitekeen jakitea. Adituen ustez, Altuna lantegiaren alboko presa da uholdeak eragiten dituen elementuetako bat. /4

ESKORIATZA

**Garbitzaileekin
zuen lan-kontratua
apurtu du Udalak**

Eskoriatzako Udalak bertan behe- ra utzi du herria garbitzen duen enpresarekin zuen lan-kontrata. GSM Medio Ambiente arduratu da orain arte kale garbiketa lanaz, baina Udaleko ordezkarien esanetan, enpresak ez du lana batere ondo betetzen. /5

ESKORIATZAN: BENITO LERTXUNDI

Azaroaren 30ean, EGUBAKOITZA
22:30ean Kiroldegian
Aldez aurretik: 1.000 pta.
Txarteldegian: 1.200 pta.
Argibideak: 943 71 46 88



ANTOLATZAILER
ESKORIATZAKO UDALA

AUTO ISTRIPIUA

**23 urteko gazte
mondragoetar bat
hil da Arrasaten**

23 urteko R.H. mondragoetarra auto istripuan hil zen eguen goizean Gesalibarrera bidean, autoak garbitzeko gunearen parean. Opel Astra beltz batek eta kamioi furgoneta batek elkarren kontra jo zuten. Furgonetan zihoana Debagoieneko ospitalera eroan zuten, zauri batzuek zituela, baina arriskutik kanpo dago.



Eguenean, goizeko 11:30ean gertatu zen istripua.

MARIA AGIRRE

Gerraren eragin

Erasoak, gerra, nazioarteko krisia... horiek guztiak Debagoieneko

LEIRE KORTABARRIA

Irailaren 11n, mundua aldatu egin zen. New Yorkeko dorre bikiei hegazkinez eraso zieten; ondorioz, Estatu Batuek Osama Bin Laden arabiarren, nazio horren etsai sutsuenaren, ehiza hasi zuten, eta Afganistango gobernuari Bin Ladeni babes emateagatik gerra deklaratu zioten.

Estatu Batuek hotza harraipatzen dutenean, mundu osoak egiten du doministiku; hala esaten du herri jakituriak, eta irailetik hona bizi izan ditugun aldaketek hori berretsi dute. Debagoiendarrok ere egin dugu doministiku, bai.

GUTXIAGO GASTATUKO DUGU


“Soldatak gutxiago haziko dira, eta ez da lan berririk sortuko. Orain arte, jendeak asko gastatu izan du; egoera berriak hori aldatuko du, eta horrek, paradoxikoki, krisia okerragotu egingo du, kontsumoa jaitsi egingo delako. Ezkortasuna nagusituko da, eta etxebizitza berri bat, auto bat edo opor batzuetan gastatu aurretik,

ondo pentsatuko dute familiek”, azaltzen du Antton Pérez de Calleja ekonomialariak. Hori zergatik gertatzen da? “Egoera zail batek segurtasun eza sortzen du, eta ekonomian segurtasuna oso garrantzitsua da, jendeak etorkizunerako dituen aurreikuspenen arabera hartzen dituelako erabakiak: adibidez, bateren batek lana izango duela ziur baldin badaki, errazago erabakiko du auto berria erostea”, dio Pérez de Callejak.

1982A EZKERO, KRISIALDI LARRIENA

Aditu horrek beltz ikusten du etorkizuna: “1982a ezker gertatu den krisi larriena da. Europak zailtasunak izango ditu aurrera egiteko. Euskal ekonomia lehen aurrez ikusi baino gutxiago haziko da, Erkidegoa, batez ere, esportatzailea delako, eta esportazioa erori egingo delako”.

Noiz hasiko gara, bada, hobe-kuntza ikusten? Horrela erantzun du Pérez de Callejak: “Gutxienez, urtebete eutsi beharko diogu. Nire ustez, 2002ko irail aldera hasiko dira gauzak hobetzen”.



Manhattan-eko ikuspegi bat, bigarren eraso gertatu baino segundo batzuk lehenago.

REUTERS

ANE ARISTI / BIDAIA AGENTEA

“Bidaiaitzeko unerik onena da oraingoa”

Bezeroekin harremana izaten duen aldetik, Ane Aristi Halcón-eko bidaia agenteak ondo igartzen ditu haien joera aldaketak.

Iraileko erasoak izan dute eraginik bidaiari debagoiendarrongan?

Bai, batez ere irailean bertan. Jendeak ez zuen hegazkinez bidaiatu gura. Amerika osorako erreserba ezeztapen asko izan genituen. Hala ere, denbora pasa ahala, beldur hori baretuz joan da. Irailean, adibidez, jendeak ez zuen inora joaterik gura; pixkana-pixkana, Penintsularako hegaldiak kontratatuz joan ziren, eta orain, Europarako txartelak ere erosten dituzte.

Ekialde Hurbilera joa-



teko ere ez duzue eskaera askorik izango, ezta?

Ez. Egiptora jende asko joaten da beti, baina erasoaren eta Afganistango gerraren ondorioz, asko jaitsi dira eskaerak.

Zer esango zenioke jendeari?

Orain dela bidaiaitzeko momenturik onena, inoiz baino segurtasun neurri gehiago daudelako.

A.M. ETXEBESTE/ GESTORE KOMERTZIALA

“Gerrak ez du hain eragin handia izan”

Euskadiko Kutxan egiten du lan Ane Miren Etxebestek. Berarekin egin du berba GOIENKARIAk aurrezki kutxetako bezeroen jarreraren gainean.

Jendea arduratuta dago?

Interes tipoa jaitsi delako ardura sumatzen da, bai. Lehendik ere behera zihoran diruaren prezioa, urteko sasoi honi dagokion bezala. Edozelan ere, Euribor tipoa, gehien erabiltzen dena, aspaldi honetan ez da hain baxu egon.

Gerrak ez du eraginik izan?

Bai, jakina, izan du bere eragina, baina ez jendeak uste bezainbatekoa. Adibidez, mundu osoko Burtsek ondo eutsi diote. Edozelan



ere, lehendik jendeak gutxi inbertitzen bazuen Burtzan, orain, are gutxiago. Burtzan jokatzeko dutenek itxaron egin beharko lukete egoera baretu arte.

Alde positiborik?

Mailegua eskatu behar dutenek, adibidez, orain dute horretarako aukerako momentua, interes oso baxua ordaindu beharko dutelako.

FERMIN MENDIZABAL/ ENPRESARIA

“Hazkundea %1era jaitsi da gurean”

Candy taldearen zuzendaria Espainian eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberako presidentea dugu Fermin Mendizabal.

Zelan eragin du krisiak gure enpresetan?

%2 edo %3ko hazkundea aurrez ikusten ziren garai honetarako eta datorren urte hasierarako; aurreikuspen horiek %1era edo gutxiagora jaitsi dira. Batez ere, konfiantza krisia da: gauzak ez zeuden hain ondo lehen, ez eta hain gaizki orain.

Egoerari aurre egiteko gai izango dira enpresak?

Hemengo enpresek beste herrialde batzuetarako produzitzen dute. Azken



urteotan, indartuz joan gara, merkatu berrietara esportatu dugu; baina krisia mundu mailakoa denez, eragina saihestu ezinekoa da. Dena dela, ez da dramatizatu behar. Gure enpresak sendoak dira eta, egoera ez bada denboran luzatzen, aurrez ikusten da datorren urteko bigarren erdi aldera gauzak bere one-ra bueltatuko direla.

na guggan

ean ere ondorioak izaten ari dira

I-11ren ondoren, ezer ez da berdin izango

■ Interneteko klabeak

Internet mundu maila-ko konplotak prestatze-ko erabil daitekeen bel-
dur dira. Erresuma
Batuko Gobernuak, era-
biltzaile guztiek sarean
erabiltzen dituzten kla-
beak agintarien esku
uztera behartzeko
proiektu bat eztabaida-
tzen hasi zen.

■ Hegoak ebakita

Hegazkin enpresen etor-
kizuna airean dago.
Estatu Batuetan, 150.000
lanpostu deuseztatu dira
ordutik; nazioarteko
hegaldien eskaera %40
jaitsi da han, eta Euro-
pan, %15. Europako
enpresek 300 milioi dola-
rreko defizita zekarten
lehendik; horri, hemen-
dik 2003 urtera arte
aurrez ikusten den haz-
kunde eskasa gehitu
behar diogu: %0tik %3ra



bitartean. Iberiak 2.000
langile kalean utzi ditu,
eta Suitzako Swissair
azken momentuan sal-
batu zen porrotetik.
Gurean, irailaren 11n,

Bilbotik Madrilerako
hegaldiak bertan behe-
ra utzi zituzten. Horrez
gain, Gamesa enpresak,
hegazkinendako piezak
egiten dituenak, 500 lan-
gile kaleratuko ditu,
batik bat Gasteizko lan-
tegitik.

■ Autobusez ere ez

Beste garraiobide
batzuek ere kalteak izan



dituzte. Estatu Batue-
tako Greyhound autobus
enpresak, urtero 25
milioi bidaiari erama-
ten dituenak, bidaia guz-
tiak bertan behera utzi
zituen azaroan, bidaia-
ri batek gidariari lepoa
moztu ondoren, hori ere
Bin Ladenek antolatu-
tako erasoak izan ziteke-
en beldur.

■ Segurtasun neurriak

Estatu Batuetan, azaro
hasieran ireki zituzten
beriz aireportuak. Was-
hingtonekoa izan zen
lehena, eta hegaldien
%24 bakarrik berranto-
latu zuen. Segurtasun
neurrien artean, hauek:



hegaldi pribaturik edo
azken orduko bidaiari-
rik ez zituen onartu; nor-
tasun guztiak egiaztatu
zituzten, pilotuenak eta
laguntzaileenak barne;
eta US Marshall-ak pai-
sanoz jantzita zihoazen
hegazkin guztietan.

■ Auto gutxiago

Auto fabrikatzaileek ere
garai txarrak bizi dituz-
te. Marka ezagunenek
geldialdi teknikoak,
kaleratzeak eta galerak
aurrez ikusten dituzte
edo honezkero gauzatu
dituzte. Sindikatuen esa-
netan, ekonomia krisia
“koartada” gisa erabil-
tzen ari dira kaleratze-
ak justifikatzeko.

■ Batzuen mesederako

Sektore gutxi batzuei
mesede egin die gaur
egungo egoerak. Bayer
farmazia enpresak
antraxaren aurka sal-
tzen duen botikaren,
Ciproren, eskaera %25
igo da. Kanadak, adibi-
dez, milioi bat pilula ero-
si zizkion enpresa ale-
maniarrari.

■ Aseguru enpresak

Aseguru enpresengan
eragin handia izaten ari
da nazioarteko krisial-
dia. New Yorkeko era-
soek 13 bilioi pezetako
kostua izango dute ase-
guru enpresa estatuba-
tuarrendako. Dena den,
geurean ez dira tarifak
igoko, hemengo aseguru
enpresek ez zutelako
kontraturik Estatu
Batuetan.

■ Karbunkua

Espainian, karbunkua
(Antraxa) dela eta, 600
larrialdi dei izan dira.
Bat ere ez da kontuan
hartzekoa izan. Adituen
esanetan, milioi erdi biz-
tanleko hiri baten gai-
nean 50 kilo karbunku
botaz gero, 95.000 bat
heriotza izango lirate-
ke. Estatu Batuetan, pos-
ta desinfektatzeko,
185.000 milioi pezeta kos-



tatuko den plangintza
onartu dute. Eta trata-
mendua jaso dutenen
arteak, Irlandako unio-
nisten buruzagia dago,
David Trimble.

Larrialdi egoeran, maukak ere badira

Hegazkinen krisia dela eta, Estatu Batue-
tara bidaiatzea musutruk irtengo zai-
zulakoan zaude? Bada, kontuz: merke-
ago beharrean, hegaldiak garestiagoak dira!
“Segurtasun neurri oso zorrotzak ezarri dituz-
te. Horrek hegaldien prezioa igotzen du. Tari-
fa arruntez gain, tasa batzuk ordaindu behar
dira, eta tasa horiek igo dira, hain zuzen ere.
Lehen 10.000 pezeta kostatzen baziren Estatu
Batuetara joateko hegazkin tasak, orain, 13.000
inguru”, dio Barceló agentziako Ainhua Agi-
rrebeñak.

Hegazkinak alde batera utzi eta autoz bidaia-
tu gura duenak izango ditu, baina, abantailak.
Adibidez, erregea merkeago dago orain. Petro-

lio enpresak gasolina eta gasolioaren salneu-
rriak jaisten ari dira; baita gas bonbonenenak
ere. Azaroaren 19an, adibidez, Campsak 119,9
pezetan utzi zuen 95 oktanoko berun bariko gaso-
lina; 97 oktanokoa, 128,9tan; 98koa, 130,8tan;
gasolioa, 104,7tan. Merkatze horretan zeriku-
si handia du nazioarteko krisialdiak, jendeak
gehiago aurreztu eta gutxiago kontsumitzea
gurago duelako mota horretako egoeretan.

Banketxe eta aurrezki kutxetan diru mai-
leguak eskatu behar dituztenek ere kostata
aurkituko dute oraingoa baino momentu ego-
kiagorik. Diruaren prezioa aspaldian baino
baxuagoa denez, interes oso apalak ordaindu
beharko dizkiete banketxeei.

Bailaran, labur

KOOPERATIBISMOA

Arizmendiarieta gogoratzeko ekitaldiak

Joan den egunean hasi ziren MCCk antolatu dituen Ariz-
mendiarrietaren omenezko ekitaldiak. Alfonso Gorro-
ñoigoitia, Jesus Larrañaga eta Jose Mari Ormaetxeak, Arra-
sateko kooperatibetako sortzaileek, Arizmendiarietaren
hiru irudi ezberdini buruzko azterketa eskaini zieten han
elkartu ziren ehun bat lagunei. Bestalde, aurten, beste bi
ekitaldi egingo dira On Jose Maria gogoratzeko: datorren
egunean, 29an, haren omenezko museo berritua irekiko da
Otaloran, eta meza esango da, kontzertu eta guzti, Arrasa-
teko parrokian. Abenduaren 18an, bestalde, Antonio Can-
celo MCCko presidenteak hitzaldia egingo du Goi Eskola
Politeknikoan. *Arizmendiarietaren pentsamendua MCCren
orainean eta geroan* aztertuko du. /ENeko AZKARATE

HEZKUNTZA

Federico Mayor Zaragoza, MUn bisitari

Bakearen Kulturako Fundazioko presidente Federico Mayor
Zaragozak Mondragon Unibertsitatearen Humanitate
Fakultatea bisitatu zuen joan den egunean, eta unibertsita-
te horretako agintariekin elkarrizketatu zen. Mondragon
Unibertsitateko arduradunek Mendeberri hezkuntza proiektu-
aren berri eman zioten, unibertsitate horrek duen hezkuntza
proiektu berritzailea. UNESCOko presidente izan zenak, oste-
ra, hitzaldia egin zuen. Hain zuzen ere, *Humanismoa XXI Men-
deko Unibertsitate Hezkuntzan* izan zuen mintzagai. /E.A.

LANA

Enpleguaren egonkortasuna bultzatzeko kanpaina jarriko du abian UGTk

Enpleguaren egonkortasuna eta segurtasuna bultzatze-
ko kanpaina abian jarri du UGT sindikatuak. Euskal
Herrian eta Espainian 500.000 sinadura batu gura dituzte.
Hori lortuz gero, ondoren, Espainiako Kongresuan lege-pro-
posamena aurkeztuko dute. Ondorengo hilabeteotan hasi-
ko dira sinadurak batzen lantokietan. Eta kanpaina hori
aurkezteko, UGT sindikatuko Euskal Herriko idazkari
nagusia, Carlos Trevilla, izan zen Mondragoen joan den aste-
an. /UBANE MADERA

HERIOTZA

Gazte baten gorpua aurkitu zuten Arantzazun eguazten goizean

Eguazten goizean, gazte baten gorpua aurkitu zuten Aran-
tzazun. Santutegiaren parean dagoen aparkalekuko amil-
degian zegoen 30 urteko donostiar gaztearen gorpua. Aran-
tzazuko estatutik deitu zuten SOS Deiak-era, eta Ertzaintza-
ren mendiko taldeko kideek aurkitu zuten gorpua. Ertzaintza
heriotzaren arrazoiak aztertzen ari da orain. Herriazingo Sai-
lekoen ustez, gazteak bere buruaz beste egin zuen. Frantzis-
kotarrek Goiena Telebistari esandakoaren arabera, marti-
tzen gauean Santutegiaren aurrean ikusi zuten gaztea, auto
baten barruan. /GORKA ETXABE

SARIA

Bergaran saldutako Loteriak 200 milioi pezeta eman zituen zapatuan

Joan den zapatuan, 200 milioi pezeta banatu zituen Lote-
riak Bergaran. Peñalba liburu dendak saldutako 27.708 zen-
bakiak jaso du saria. Bi serie oso izan dira, hogeitxartel. Bakoi-
tzari 10 milioi egokitu zaizkio. Pilar Muxika da Peñalbako
arduraduna. GOIENKARIAri adierazi dioenez, zenbaki sari-
tua ez ei da ohikoa bere administrazioan eta, horrez gain,
abonaturik ere ez du. Oraindik ez da inor gerturatu Peñal-
bara saria jaso duela esatera. “Oso posible da Bergaran sari
hori banatu ez izana”, esan dio Pilarrek GOIENKARIAri. Saria
egokitu denez, oraingo astean, jende ugari hurreratu da Peñal-
bara Loteria erostera. /MONIKA BELASTEGI

BERGARA

ERREPIDEAK

Ekialdeko saihesbidea 2002ko irailerako amaituta egongo da

Bergara barrutik igarotzen diren ibilgailuen %60 bereganatuko ditu

MONIKA BELASTEGI

Antton Jaime, Garraio eta Errepide diputatua, saihesbideko lanak ikusten izan da. Lanak aurrez ikusitako epean bukatuko dira: 2002ko irailean.

Bergarako ekialdeko saihesbidearen lanak joan den martxoaren 2an hasi ziren, eta badirudi martxa onean doazela. Halaxe adierazi zuen, behintzat, Antton Jaime, Garraio eta Errepide diputatuak, joan den egubakoitzean saihesbidera egindako bisitan. Antton Jaimeren esanetan, 2002ko irailerako amaituta egongo dira lanak, aurrez ikusitako epean, hain justu.

Obrak bi xede ditu: batetik, Beasain-Durango zeharkako ardatzaren zati izanik, eskualde eta lurraldeak lotzea; gerora, Antzuola eta Zumarraga aldera luzatuko da. Eta bestetik, saihesbide ere bada, Bergarako herrigunea San Antonio ingurutik autobus geltokiko zubiraino zeharkatzen duen GI-632 errepidearena. Hori horrela, herri barrutik igarotzen den trafikoaren %60 bereganatuko duela adierazi zuen Jaimek.



Garraio eta Errepide diputatua eta Bergarako alkatea lanak ikusten.

ZUBIAURREKO TUNELA

Saihesbidearen enborrak 2,1 Km izango ditu, eta tartean, Zubiaurreko tunela dago: 320 metro luze izango ditu, eta 11,50 zabalean. Urrian hasi ziren tunela zulatzen, eta 90 metro inguru aurreratu dituzte. Aurreratze fasea abendurako amaitzea espero dutela aurreratu zuen Jaimek, eta *des-troza* deritzona, otsail erdirako.

Lanak oso aurreratuta daude, diputatuaren esanetan. Lur mugimendua, esaterako, saihesbidearen %50ean bukatuta dago. Bestalde, lur mugimenduetatik sortutako soberako material ia guztia San Antonioko harrobi zaharra lehenera ekartzen erabili dutela aurreratu zuen, eta Eibar-Gasteiz autobidearen Angiozarko lubeta egiteko.

OÑATI

ZUBILLAGAKO PRESA

Zubillagako presa eta zubiari buruz azterlana egingo dute

Helburua da inguru horretan sortu ohi diren uholdeak saihesteko zer egin daitekeen jakitea

AINTZANE IRIZAR

Adituen ustez, Altuna lantegia-ren alboko presa da uholdeak eragiten dituen elementuetako bat. Uholdeok saihesteko zer egin daitekeen aztertuko dute.

LKS enpresak egingo du azterlan hori; halaxe erabaki zuen Gobernu batzordeak azaroaren 8an egindako bilkuran. Azterlanaren proiektua enpresa horri esleitzearren arrazoia da "Osinurdi parean ere egin zuela antzerako azterlan bat, eta inguru hori oso ondo ezagutzen dute enpresako adituek", azaldu digu Angel Biainek Hirigintza batzordeburuak.

Hiru bat hilabete beharko dituzte presaren eta inguruko elementuen azterketa egiteko. Presaz gain, 500 metro goragoko eta 500 metro beheargoko elementuen azterketa egingo dute; tartean, baita zubia-rena ere, balitekeelako zubi hori ere uholdeen eragile izatea.

Izan ere, Angel Biainen esanetan, oso begi txikia dauka, eta horrek arazoak sor ditzake ur handien kasuan.

Aurtengo apirileko bilkura baten erabaki zuen Gobernu batzordeak horrelako azterketa baten beharra zegoela, eta diru baliabide nahikoa zegoen momentuan, presarekin eta presa inguruko ibaiartezekin zerbaitekin egin beharra zegoela.

Esan bezala, hiru hilabete inguruko lana daukate orain LKS enpresako adituek egoera aztertzeko; behin txostena bukatzen dutenean ikusiko dute zein den uholdeak saihesteko konponbiderik egokiena.

Zertzelada

Hiru bat hilabete beharko dituzte azterketa egiteko; behin txostena bukatzen dutenean ikusiko dute zein den uholdeak saihesteko irtenbiderik egokiena.

GABONETAKO ARGIAK

Maykolux enpresari esleitu dio Udalak Gabonetako argiteria ipintzeko lana. Hura izan zen, gainera, deialdira aurkeztu zen enpresa bakarra. Hala, lau milioi pasatxoko aurrekontua izango dute aurtengoan Gabonetako argiak.

ANTZUOLA

ANELKARREN FESTA

Abenduaren 1ean ospatuko du Anelkarrek Udazkeneko Festa

Brasilera ur zisterna bat erosi gura dute

AINTZANE IRIZAR

Udazkeneko Festa datorren zapatuan, abenduaren 1ean, egingo dute, 16:30ean hasita. Festa horren helburua Brasilera ur zisterna bat erosi gura dute.

Ur zisterna bat erosi gura dute Anelkarrekoek abenduaren 1eko festan batutako diruarekin. Canudos herrian presa bat eta urtegi bat egin gura dituzte, lehorteei aurre egiteko; besteak beste, ur zisterna baten beharra daukate hantxe. Dirua batzeko zisterna bat jarriko dute Zurrategi plazan, eta kontua izango da hantxe dirua "saskiratzea".

Bidezko merkataritzako produktuak ere jarriko dituzte salgai. Bestetik, Bartzelonako mimoak egongo dira Zurrategin, eta baita sorpresaren bat edo beste ere.

SENEGALDARRAK, POZIK

Udaberriko Festan, maiatzean, batutako dirua Senegalgo Casamance herrira sorgailu bat bidaltzeko erabili zuten. Casamanceko herritarrek oso pozik azaldu ziren, eta Anelkarreko kideek azaldu digutenez, bideo bat bidali dute Senegaldik, sorgailua iritsi zeneko irudiekin. Laster erakutsiko ei diete herritarrei bideo hori.

ELGETA

EURORA OHITU GURAN

Eurora ohitzeko abian jarri den ekimenean zortzi bat lagun ari dira

Hil bukaera arte, arratsaldero batzen dira Ozkarbi elkartearen

OXEL EROSTARBE

Hil hasieratik, zortzi bat lagun arratsaldero-arratsaldero batzen dira Ozkarbi elkartearen, eurora ohitzeko abian jarri duten ekimenean.

Joakin Gastesi da herritarrek eurora ohitzen joateko abian jarri

duten ekimenaren arduraduna. Adin guztietako jendeak parte har dezakeen arren, adineko jendea izan da orain arte ekimenean parte hartzen dabilena. Joakinen esanetan, parte hartu duten batzuek segituan ikasi dute. Beste batzuek, ordea, zailtasun handiagoak izan dituzte. Batzuek irakurtzen ez jakiteak zenbaki

batzuekin nahastea eragiten du. Hala ere, zailtasunak dituztenak bueltatu egiten dira eta egiten ari diren ahalegina positiboki baloratu behar dela dio Joakinek.

Eibarren, euroa lantzeko monitore ikastaroan, eskuratu zituzten Elgetan erabiltzen dabil-tzan txanpon eta billeteak.

Hil bukaera arte, ekimen horrekin segituko dute. Ozkarbi elkartearen batzen dira arratsaldero, 14:00etatik 15:00etara. Ateak zabalik daude, eta jendeak gura izanez gero, aurrerago ere ekimenarekin segitzeko gertu daude.

'LA GARBO S.A.' ANTZERKIA GAUR

Gaur, egubakoitza, gaueko 22:30ean, Markelñe taldearen *La Garbo S.A.* antzezlan ikusteko aukera izango dugu Espaloia aretoan.

Kultura batzordeak antolatut duen antzezlan adin guztiendako dago gomendatuta. Tragikomedian honetan bi kale-garbitzaile dira protagonistak.

GoiHata

翻訳・通訳

Traducciones
Translations

Übersetzungen
Traduction

Badakitzu zer jarten dauen hor? Hortarako gaz.
Itzulpenak hizkuntza guztietan.

Araba Etorbidea 3-2. Eskatu Eraikina
☎ 943 79 25 75 • Faxa: 943 71 21 25
E-maila: info@goihata.com • http://www.goihata.com

20500 ARRASATE
(Gipuzkoa)

RESTAURACIONES RICE

- Etxearen aurreko aldean berrikuntzak, teilatuak, erretenak, zorrotenak eta terrazak.
- Eskatu aurrekontua konpromiso barik.
- Eskatzen duzun aurrekontu bakoitzarengatik, Gabonetako Loterian partizipazio bat emango dizugu.

Ez dugu herrietara desplazamendurik kobratzen.

Pintor Pablo Uranga, behea • GASTEIZ
Tel.: 945 14 51 88 / 609 48 71 32

ARETXABALETA

ZUHAITZEI ITXURA ALDATZEN

Udazkenarekin batera herriko zuhaitz gehienak inausiko dituzte

AMAGOIA LASAGABASTER

Urtero legez, udazkenarekin batera herriko zuhaitzek itxuraz aldatzen dute. Lan horren ardura Udalak herriko Makai enpresari eman zion aspaldi, eta aurten ere, lantoki horretako langileak ari dira zuhaitzen inausketa egiten.

Joan den astean, Portasol aldean hasi ziren lau langile zuhaitzek sobera dituzten abarrak moztzen. Araba ibilbideko platanondoekin ekin ziren, hain justu ere. Makaiko langile baten esanetan, zuhaitz mota horrek ematen die lan handiena. Platanondoari arrama ugari kendu behar zaizkio, batez ere, enborrharen ondondotik.

Mota horretako zuhaitz gehiago aste honetan lanean ibili diren gunean daude, Gernika plaza inguruan. Gainera, lan handiena ere hortxe egin behar izaten dute Makaikoek. Izan ere, Errekabarrenen daude herriko zuhaitz

gehienak, eta gainera, guztiak platanondoak dira.

Inausketa lanek urtarrilera arte iraungo dute. Tartean, bi urtean behin bakarrik moztzen diren herriko zuhaitzak ere inausiko dituzte aurten.

Udalak herriko berdeguneen eta zuhaitzen mantentze-lanetarako 18 milioi pezeta gastatu ditu, gutxi gorabehera, aurten.

ABARREKIN ONGARRIA EGINGO DA

Orain arte, moztutako abar guztiak erre egiten zituzten, besterik barik. Baina aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen teknikarien ekimenez, ongarrria egi-

teko erabiliko dira zuhaitzen enbor txiki eta hostoak. Prozesu hori Arrasaten egingo da, Akeiko zabortegian, hain zuzen.

Egunean bertan jasotako abarrak batu eta Makaiko langileek eramango dituzte Akeira. Han guztiak ondo txikituko dira, eta datorren urterako prest egongo da ongarrira.

ARRASATE

ON JOSE MARIA GOGOAN

On Jose Maria Arizmendiarrietaren heriotzaren 25. urteurrena 29an

Haren oroimenez ekitaldiak izango dira Mondragoen

UBANE MADERA

Hilaren 29an, eguna, On Jose Maria Arizmendiarieta hil zela 25 urte beteko dira. Hori dela eta, Biteri Ikastetxe Nagusikoek ekitaldiak antolatu dituzte.

On Jose Maria Arizmendiarieta orain dela 25 urteko azaroaren 29an hil zen. Markinako Barinaga auzotik etorritako abade hura izan zen Mondragoeko Mugimendu Kooperatiboaren sortzailea. Hori dela eta, haren oroimenez egingo diren ekitaldien artean, Mondragon Unibertsitateko Biteri Ikastetxe Nagusiko batzordeak On Jose Mariaren gainean erakusketa antolatu du datorren asterako. Martitzenean, eguaztenean eta egunean egongo da zabalik, Eskola Politeknikoaren seigarren erakinean. Batez ere, argazkiak izango ditu, Arizmendiarrietaren bizitzaren gaineko erretratuak, hain justu.

Horrez gain, Iturripeko kiroldegian Ikastetxe Nagusiko ekin-tza akademikoa izango da hilaren 30ean, egubakoitzean. Ikasturteari hasiera emango diote eta bekak emango dituzte, 19:00etan.



ARTXIBOA

Erakusketa, hitzaldia, meza eta kontzertua izango dira On Jose Maria oroitzeko.

Horrekin batera, Arizmendiarrietaren urtemuga dela-eta, Jesus Larrañagak haren gaineko hitzaldia egingo du ekitaldi berean, *Jose Maria Arizmendiarieta-ren konpromiso pertsonala* izenburuarekin. Laurehun gonbidatu baino gehiago izango dira, tartean, On Jose Mariaren senideak, elizkideak eta enpresa kideak.

Senideen artean, Arizmendiarrietaren arreba izango da, eta Ohorezko Beka emango diote.

MEZA ETA KONZERTUA

Bestalde, eta MCCk antolatuta, egunean, meza izango da San Juan parrokian 19:00etatik aurrera; eta Goikobaluk kontzertua emango du.

LEINTZ GATZAGA

Haur Hezkuntzako eskola ingurua txukuntzen hasi dira aste honetan

MIRARI ALTUBE

Leintz Gatzagak Haur Hezkuntzako eskola inguruan txukuntze lanak hasi zituzten eguaztenean. Udaletxearen eta eskolaren artean dagoen lorategiko hesia nahiko txarto dago, eta ondorengo egunetan berria jarriko dute. Lortegi horretatik eskolara sartzeko espaloia ere egingo dute. Egokitze lan horien aurrekontua milioia baino zertxobait gehiagokoa da, eta Gatzagak Udala arduratuko da ordaintzeaz. Udalak ez du uste Arrasateko Lurkoi enpresak denbora luzerik behar duenik lanok egiteko.

Haur Hezkuntzako eskola, bestalde, iaz zabaldu zuten. Herriko gurasoek egindako eskaerari erantzun guran sortu zen Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolan barneratu zen gela hau. Hiru eta sei urte bitarteko umeak daude hantxe, eta aurtengo ikasturtean zortzi matrikulatu dira. Eskola guztiak Gatzagan ematen diren arren, hilean behin Eskoriatzara jaisten dira adin bereko umeekin hartu-eman izan dezaten.

ESKORIATZA

HERRIKO KALEAK ZIKIN

Udalak kale garbitzaileekin zuen lan-kontratua apurtu du

Kexa asko jaso dira herritarrengandik

MIRARI ALTUBE

Eskoriatzako Udalak bertan behe- ra utzi du herria garbitzen duen enpresarekin zuen lan-kontratua. GMSM Medio Ambiente arduratu da orain arte kale garbiketa lanaz, baina Udaleko ordezkarien esanetan, enpresak ez du lana batera ondo betetzen. Herritarrengandik ere hainbat kexa jaso dira.

San Pedro, Intxaurtxueta eta Olaeta auzoetako kaleak dira, batez ere, zikin daudenak. Horrez gain, paperontziak ere ez dituzte husten eta edukiontzi batzuk zikinkeriaz gainezka daude.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalak CESPAn enpresari eman dio abendutik aurrera herriko kaleak garbitzeko ardura. Ea, behingoz, zikinkeria arazoak konpontzen diren.

ARAMAIO

KULTURA

Estreinatu dute liburutegi berria aramaioarrek

Azaroan eraman dituzte liburuak leku berrira

UBANE MADERA

Liburutegi berria estreinatu da azaroan, kultura etxe berrian dagoena, hain zuzen ere. Aurrekoarekin konparatuta duen desberdintasunik handiena da berria hiru zatitan banatuta dagoela: ume eta gazteendako gunea, eleberriak, entziklopediak eta ordenagailuak dituen gunea, eta liburuak gaika antolatuta dituen gunea.

Liburutegiaren arduradunak, Olga Jauregik, GOIENKARIari adierazi dioenez, ordenagailuen gela da gehien erabiltzen dutena, internet erabiltzeko, lanak egiteko...

6.000 LIBURU, 400 BAZKIDE

Sei mila liburu inguru ditu liburutegiak eta ia 400 bazkide, aurreko urteetan baino gehiago; izan ere, bazkide kopurua haziz doa.

OPEL

Zatoz

urte bukaerako

deskontuak

aprobetxatzera!

ZERBITZU OFIZIALA

KONTZESIONARIO OFIZIALA

TAKOLO AUTOAK

TALLERES OLA

Araba etorbidea • 943 77 30 10 • ARRASATE Olabarrena auzoa • 943 76 33 44 • BERGARA

Gizonak Emakumeak

JANTZIAK

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Ibai-arteren bazkide

Zabalik

MIGUEL ANGEL
ELKOROBEREZIBARNik ere maite
zaitut

Amodiozko gutunak txotxolokeriak direla errepikatu ohi zuen bere poema hartan Fernando Pessoa poeta ezagunak; askorentzat horixe besterik ez baitira zinez eta minez adierazitako hitzok, tentelkeria hutsa. Amodiozko gutun bat idazten saiatu denak badaki zein zaila den buruan eta bihotzean jirabiraka dituen asmo horiek hitz borobiletan gauzatzea, erretorika hutsalean erori gabe. Ez noa ni hemen amodiozko gutuna defendatzera, ezta gutxiagorik ere, bakoitzak aukera beza bere adierazpide egokiena; baina azkenaldian baztertuta eta gaizki ikusia egon den literatura generoari bere kategoria aitortu nahi nioke. Gure etxeko apalategietan gutunez hornitutako liburu gutxi aurkituko dugu ziurrenik, edozein hizkuntzatan izanda ere; akaso orain dela hiru urte Bergarako Jardun Elkartek argitaratu zuen gutun bilduma hura, literatur genero honen euskal erreferentzia bakarrenetarikoa. Jardunek urtero antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketari esker, generoaren berpizkundearen aurrean egon gintezkeela adierazi zuten iazko epaimahakideek, eta horren frogazken bederatzi urteotan lehiaketara aurkeztu diren 1.525 gutunak izan daiteke (%30 Debagoienekoak) eta baita, Bergarakoaren arrastoari segituz, beste herri batzuetan eman den antzeko lehiaketen ugalketa ere. Badago kontuan hartu beharreko beste datu bat: parte hartzaileen gehiengoa hogei urteren bueltan dabilzanak dira, amodiozko gutunak txotxolokeriatzat hartzeko arrazoirik ez dutenak nonbait, dirudienegazte izandako nagusi askoren konplexuengandik libre baitaude. Zorionez, azken hauen artean salbuespenik egon badago. Azken finean, amodiozko gutunena kafearena bezala da: azukre-koxkor gehiegi jarritz gero, gogaitu egingo zaitu. Baina denok edan dugu inoiz kafea, ezta?

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



Aralarri erantzunez

Zubi apurtzaile bezala irudikatzea gogorregia delako, Aralarri erantzutea erabaki dut. Urteak daramatzagunok harremanak lantzen, batekin, bestearekin, elkartzen gaituen gaien inguruan biltzen eta orokorrean etengabeko zubi-lana egiten, lan honen garrantzia asko estimatzen dugu.

Ikusten dut bai, norbaitek irakurri, aztertu eta punta atera diola GOIENKARIAk niri egindako elkarrizketa zail eta konprometituari. Ezkertiar bezala zuztarretara joatea gustatzen zaidanez, erantzunetan ere, galdera zailak izan arren, sakonera joatea gustatzen zait. Askotan ez dugu asmatuko eta beste askotan erantzunak asko-erendako ez dira gustukoak izango.

Zehazki Aralarri dagokion galderari erantzundakoa ez zen guztiz nik esandakoa edo esan nahiko nukeena. Nire erantzuna, Batasuna erakunde nazional bezala, Aralarrekin izandako bilkurei dagokio, eta Batasunak Aralarrekin harreman iraunkor eta preferentzialik ez izatea erabaki zuen. Nire erantzunean gehitu nuen ere, beste batzuei aritzeaz baino, gehiago gure lanari eta gure erakundeari begiratzea nahia-
go dugula. Aurrera begira, Udal hauteskunderi adibidez, ikusiko genuela ere esan nuen.

Gure eskualdeari dagokionez, uztail bukaeran GOIENKARIAn Juan Martin Elxepururi egindako elkarrizketaren hari-

tik, bilera baterako deitu genion, eta lasaitasunez, gure iritzia azaldu genion (gogoratu, Juan Martin, bukaera aldera esandakoa eta alderatu zubi apurtzailearen figurarekin bat datorren edo ez). Orduan ere, Batasunak publikoki eta prentsa bidez ez erantzutea erabaki zuen elkarrizketan esaten ziren gauza asko. Aldiz, bilera batean eztabaidatzeko (zubi-lana beraz) gonbita luzatu genion Aralarri.

Lan estiloan desberdintasunak nabarmenak direlako, batzuek diskrezio osoz egindako bilerak nahiago izaten ditugu, beste batzuek, aldiz, nahiago dute hedabideen saltsa horretan murgiltzea. Zentzu honetan eta pertsonalki, nahiago nuen Debagoieneko Aralarreko kideren bat zuzenean nirekin harremanetan jarri izango balitz, gainera “elkar errespetatzeko” bide zuzenagoa delakoan nago.

Batasuna prozesua eta ABk iparraldean egindako barne eztabaida ezin dira parekatu eta multzo berdinean sartu. Luze joko luke gai honen inguruko argiketa.

Aralar eta Batasunaren arteko desberdintasunak “taktika arlokoak” baino askoz sakonagoak dira. Desberdintasunak asko dira eta guztiak aipatzea ezinezkoa suertatuko litzaidake eskutitz honetan.

Azkenik, eta esanez gogoz kontra idatzi dudala eskutitz hau (dinamika honetan sartzea ez dudalako gogoko), argitzeko balio izan badu gaitz erdi, edozeinekin biltzeko eta hitz egiteko prestutasuna azaldu beharrean nago Batasunaren izenean.

AITOR ARANTZABAL, DEBAGOIENEN
BATASUNAREN KOORDINATZAILEA
Debagoiena

Pauso garrantzitsua

Egoera injustu baten salaketa bezala, giza eskubideen aldarrikapen bezala, “Euskal Presoak Euskal Herrira” esaldiak oihartzun handia izan du azken urteetan.

Presoen senitartekook urteak daramatzagu, Senideak elkartearen babesean, gure senitartekoen eta gure egoeraren berri gizaratzen, behin eta berriro kaleratu gara euskal gizarteari adierazteko dispartzioak bere horretan jarraitzen duela. Bai, batzuetan politikoei, sindikatuak, eragile sozialek eta kultureleki bat egin dute gurekin. Badakigu gizartearen gehiengoak “Euskal Presoak

Euskal Herrira” aldarrikapenarekin bat egiten duela eta beharrezkotzat jotzen duela. Baina, zoritxarrez, hau ez da nahikoa.

Intentzio eta borondate onak, gupida keinuek, gure samina neurri batean arin dezakete, baina ez dute gure drama konpontzen.

Presoek, euren senitartekook eta herri honek, gizarte hainbestetan entzun dugun aldarrikapena ahalik eta arinen errealitate bihurtzea behar dugu. Dispartzioarekin bukatzen dugun neurrian herri honetako errealitatea ezberdina izango delako.

Dispartzioarekin bukatzea posible dela uste dugu. Horretarako, guztion laguntza beharrezkoa da. Astero bizi dugun inpotentzia hau eraginkorra izango den ekimen kolektibo batekin eraldatu behar dugu. Gutxieneko konpromisoa giza aldaba indartsu bihurtu behar da. Horretarako, emaitza kolektibo handia izango duen esfortzu txiki bat eskatzen dugu: hilero, azken egubakoitzetan, Euskal Herriko herri eta hiri guztietan antolatuko diren kontzentrazioetan parte hartzea.

SENIDEAK
Debagoiena


Zuzenketa

Joan den asteko GOIENKARIAn, Unai Loidik idatzitako *Telebegi* zutabearen akats bat zegoen artikulua izenburuan. Unai Loidiren zutabearen izenburua *Koprofagia* zen. Horren orde, *Koprofobia* idatzi genuen. *Koprofagiak* kaka jatea esan gura du. *Koprofobiak*, berriz, ez dakigu zer esan gura duen. Antza, hitzak asmatzen hasiak gara. Barkatu, irakurle, huts horregatik, eta barkamena, batez ere, artikulua egileari, Unai Loidiri.

GOIENKARIA

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Madrileko Gobernuaren Unibertsitate Legea hizpide izan genuen joan zen astean. Izan ere, protesta ekitaldiak izan ziren Hego Euskal Herriko campusetan eta

Mondragon Unibertsitatean. PPren legeak ez du beste inoren babesik jaso gure artean, eta indar politiko, sindikatu, ikasle talde eta errektore ia guztiak aurka agertu dira. Eusko

Jaurlaritzak ere bere unibertsitate legea egingo duela aurreratu du. Baina, hain txarra baldin bada PPren Unibertsitate Legea, zelakoa izan beharko litzateke unibertsitate lege on bat?

Zelakoa izan beharko litzateke Unibertsitate Legea?

Unibertsitate eredua Euskal Herrian



IÑAZIO OLIVERI
Hezkuntza sailburu
oiha eta MUko
hurrengo errektorea

Unibertsitate eredu berri baten beharra guztion eskaera da. Unibertsitate Legeak 18 urte bete ditu, denbora tarte horretan unibertsitateak izan duen aldaketa ikaragarria izan da, eta gune unibertsitario berria datorkigu, esparru estatala gaindituko duena eta heziketa beharrei erantzuna eman beharko diona.

Unibertsitate berria, zehaztuta dagoen gizarte ereduaren barruan integratuta egon behar da. Heziketari dago-kionez, profesionalen lan eta profesio

aldaketak etengabeko birziklapen beharrak dakartza, eta ondorioz, mundu ekonomiko-produktiboaren eta unibertsitatearen arteko jende fluxu bat sortuko du.

Beraz, euskal sistema unibertsitarioak hiru elementutan oinarrituta garatzen ari den Goi Mailako Europar Gunearen behar eta eskaerei aurre egin beharko dio. Honako behar eta eskaerei:

Batetik, egungo eta etorkizuneko errealitatera moldatzeko malgutasun eta heterogeneotasuna.

Bestetik, autonomia eta erantzukizuna. Autonomia gobernu eraketan, barne antolakuntzan, irakasleak hautatzean helburu estrategikoak finkatu eta horiek lortzeko bidea aukeratu ahal izateko. Kontu eskaera eta unibertsitate kanpoko organoen kontrolerako ardura.

Azkenik, bikaintasuna bilatzea, unibertsitate sistemen esparru guztietan, unibertsitate sistema guztiarentzat helburu bihurtu dadila.

Gainera, gure herrialdeko berezitasunei erantzuna eman beharko die, euskararen normalizaziorako eta euskal kulturarentzat ezinbesteko tresna bihurtuz.

Arlo geografikoa zehaztu beharreko hirugarren esparrua da. Ezinezkoa dirudi espazio unibertsitario bakarra sortzea dibertsitate politiko handiko testuinguru baten, baina posible da herrialdeko unibertsitate desberdinen arteko harremana garatzen joatea, euskal errealitatearen berezitasunen erantzun moduan.

“Unibertsitate berria zehaztuta dagoen gizarte ereduan integratuta egon behar da”

Euskal irakaskuntza eredu propioaren alde!



MARTZEL
OIARTZABAL
MUko Ikasle
Abertzaleak-ekoa

Espainiar agintariak euren unibertsitate ereduaren aldeko etengabeko jardunean ari dira, unibertsitatearen (eta gizarte osoaren) uniformizazioa eta eredu espainiar atzerakoia indartzeko apustu garbia eginez. Honen baitan kokatu behar da PPren Gobernuak ezarri gura duen unibertsitate lege berria.

Lege honen bitartez, euskal ikasleoi Euskal Herriko eremu unibertsitarioa arautzeko aukera ukatzen zaigu, beste behin, aurreko legeak (LRUK)

egin izan duen modura. Bestetik, honek dakartzan aldaketek egun jasaten dugun egoera larriagotzen dute: Espainiar Estatuko unibertsitate eremua oraindik gehiago homogeneizatzeaz gain, UPNA eta UPVko ikasleen ordezkaritza maila txikia, oraindik gehiago murrizten baita, eta Opus, Deustu eta MUko ikasleok ordezkaririk gabe jarraituko baitugu (Baionako fakultatean lege honek ez du eraginik Parisen menpe baitago). Lege honek halaber, unibertsitate pribatuaren alde egiten du argi eta garbi, gutxi batzuen interes ekonomikoak populuaren beharren gainetik ipiniz. Hitz bitan, Euskal Herriari antidemokratikoki egiten zaion jazarpen berri baten aurrean gaude.

Honen guztiaren aurrean, eta ez lege hau, ez beste lege arrotzik Euskal Herrirako ez ditugula gura ihardetsiz, euskal ikasleok irakaskuntza eredu propioaren garapenean lan egiten jarraituko dugu.

Euskal ikasleok, unibertsitatearen euskalduntzerako eta euskal kurrikulua gorpuztearen bidean, badugu alternatiba, eta ikastetxez ikastetxe, campusez campus alternatiba errealitate gauzatzea da gure xedea.

Bide honetan, errektore, zuzendari, irakasle eta eragileei elkarlanerako gonbita egingen diegu, inposaketa guztien gainetik, geure eredu propioa osatzen lan egin dezagun; euskal herritarrontzat izanen dena eta Euskal Herriaren interesak aseko dituen. Etorkizuna gaurdanik eraikiz... Geu gara geroa!

“Euskal Herriari antidemokratikoki egiten zaion jazarpen berri baten aurrean gaude”

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Interneten erosketak egitea segurua da?

Gora eta Behera

DEBAGOIENEN TXOFERRAK



Gure dontsuzko baillada honetan autuan haruntz eta honuntz dabitzen gizon eta emakume danak omenaldixa merezi dabe erakutsitako pazientziagatik. Txalo bat danei. Hori bai dala obren planifikaziñua. Zein ete da arduraduna? Eta, gaiñera, autuan irratixa ipiñi eta illadak beti beste nunbait darella entzun bihar.

GAIZKILLIAK? HARRAPATZEN



Gaizkilliak gaizkille bihurtu, jaten emon, hazten lagundu, eta norberan kontra bihurtzen diranian, suntsitzaille diran horrek. Orduan onak ziranak, gaur diabruaren hurrengo. Zer izango ete dira bihar, gaurko onak? Zeiñek esan zeban bizitza ziklo bat dala?



GOTZON
IPARRAGIRRE
Bergarako
Mariaren
Lagundia
ikastolakoa

Koplak

Euroa

Pezeta asko behar da euro bat lortzeko, eta denbora gutxi bera gastatzeko.

Euroa datorrela ta danok bildurrez, nekez lortuko dugu da jungo da errez.

Pezetiari agur badator euroa, zatoz nigana lasai badaukat lekua.

Ez gaitezen kezkatu gehiegi horrekin, aldan ondona pasa hartzen degunakin.

Hamaika ikusteko jaioak gara gu, berriz zentimotara ohitu behar degu.

Nekeza izango da papela lortzia, txatarrantzat ein biot larruzko poltzia.

ANDRES GABILONDO

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Jesus Larrañaga

MONDRAGOEO KOOPERATIBA MUGIMENDUKO SORTZAILEETAKOA

“Arizmendiarrietarendako, jendearen parte hartzea etengabeko eraldaketa modua zen, iraultza baino askoz garrantzitsuagoa, gainera”

Jose Maria Arizmendiarrieta hil zela 25 urte beteko dira datorren egunean, hilaren 29an. Haren lankide gertukoetako bat izan zen Jesus Larrañaga, eta ondo ezagutzeko aukera izan zuen. Arizmendiarrietaren eta, oro har, Arrasaten sortutako kooperatiba mugimenduaren gainean jardun dugu Jesus Larrañagarekin (Mondragoe, 75 urte).

ENEKO AZKARATE

Arizmendiarrietaren heriotzaren 25. urtemuga ospatzeko mahai ingurua antolatu zen joan zen egunean. Haren figuraren gainean jardun zenuten bere lankide izandakoek. Zelan definituko zenuke On Jose Maria?

Hainbat ezaugarri definitzen dute Arizmendiarrieta, eta ezaugarri horiek ezagutzeko bere biografia ezagutu behar genuke lehenbizi. Mutikotxoa zenean, familiak garrantzi handia izan zuen beregan. Bestalde, inoiz gelditu egoten ez zen horietakoa zen. Eta erabat humanista. Izan ere, ez genuke ahaztu behar On Jose Migel Barandiaran izan zuela irakasle. Gero, gerra denboran, kazetari lanetan ibili zen, Agustin Zubikarai bere lagunak *Eguna* aldizkarira eroan zuen-eta. Gaztelaniatik euskararako itzulpenak egiten zituen. *Eguna* aldizkarian lanean zebilela zera ikusi zuen, politikoak gerra irabazteko ahaleginetan ibili beharrean, euren posizio edo alderdiaren alde zebiltzala lanean. Eta, baita, zenbat gezur esan behar zituzten

herria berotzeko. Gerra ostean, hortaz, ideia nagusi batekin etorri zen Mondragoera: ideiak banatzen gintuela, baina beharrak batu. Beraz, umetako, gazte denborako, seminarioko, hedabideetako eta gerrako esperientziari gehitzen badiogu bere nortasuna, zera lortuko dugu, Mondragoeko esperientzia. 1941. urtean, hau da, gerra bukatu eta berehala, etorri zen Mondragoera. Bere asmoa Soziologia ikasketak egitera Lobainara joatea zen, baina monseñor Lauzirikak Mondragoera bidali zuen.

Zeintzuk ziren, bada, bere nortasunaren ezaugarri nagusiak?

Berbetarako erraztasun handirik izan ez arren, oso persuasiboa zen. Bestalde, koherentea zen: Jaungoikoarengan sinisten zuen, baina gizarte arazoek asko kezkatzen zuten. Euskorra ere bazen. Helburu bat zehazten zuenean, bukaeraraino helitzen zen. Beraz, persuasiboa, koherentea eta euskorra zen. Horretaz gain, bakarrik ez zuen inoiz lanik egiten, beti taldean, eta bigarren mailan egotea gustatzen zitzaion, aurpegirik eman barik, merituak beste batzuentzat izan zitezkeen. Idealista zen, baina, era berean, pragmatikoa. Bere ustez, langileen parte hartzearen bitartez, enpresa eraldatu egin zitekeen eta, gainera, produktibitate handiagoa lor zitekeen. Oso diskretoa zen, eta besteek esanak entzuteko gaitasun handia zuen. Hortaz, ezaugarri hauek guztiak kontuan izanda, esan daiteke inteligentea zela. Inteligentea ez denak ez dauka gaitasunik diskretoa izateko, ordenatua izateko, koherentea izateko... A, eta oportunoa ere bazen. Konturatu zen gerra ostean, ideia politiko eta sindikalak, halabeharrez, isilpean zeudela. Politikaz berbarik egitea ez zegoenez, eta beste behar batzuk zeudenez, bere doktrina zabaltzeko une egokia zela ikusi zuen. Berarendako, jendearen parte hartzea etengabeko eraldaketa modua zen, iraultza baino askoz garrantzitsuagoa, gainera.

Askotan aitortu da On Jose Mariak egingakoa. Baina zer gertatuko zen harek

ez balitu aurkitu Gorroñogoitia, Larrañaga, Ortubai, Ormaetxea eta Usatorre bere proiektua aurrera eramateko?

Sakonean bera izan zen liderra, baina ilusio handiko giza talde batekin egin zuen lan. Bestalde, sasoi hartan sekulako autarkia bizi zuen Espainiak, eta horrek gauzak erraztu egin zituen. Eta, horretaz gain, oso garrantzitsua izan zen lehendabiziko esperientziak aurrera egin izana, hau da, Ulgorrek hutsik egin ez izana.

Enpresa gizona ere izan zen. “Círculo de Empresarios” izeneko erakundeak XX. mendeko 100 enpresario onenen artean aukeratu du...

Bai, baina ez zen ohiko enpresarioa. Batez ere, liderra zen. Egitasmoen bultzatzailea. Pertsonen bitartez, egitasmoak eta enpresak bultzatu zituen. Berak bideratutako proiektuak herritarren beharrei konponbidea emateko abiatu zituen. Liderra zen, baina ez zen lider karismatikoa horietakoa. Arizmendiarrieta, une batean, akaso, oso idealista izan zen. Honekin zera esan gura dut: berak uste zuen frantzikotiar laikoen taldeekin, hau da, gu bezalakoeekin, egitasmoak han eta hemen bultzatu zitezkeela. Baina ez zuen kontuan hartu hurrengo belaunaldiak demokrazia edo elkartasuna moduko baloreak aintzat hartzen ez bazituzten, hainbat egitasmo ezin zirela aurrera eramane.

Uste duzu, hala ere, Mondragoera etorri zen bezala, inguruko beste herrien baten ere halako egitasmoak bultzatu ahal izango zituela?

Bai, Bergaran, Oñatin... era honetako herri erdi industrialetan ere lortuko luke. Bere ustez oso garrantzitsua zen herriaren alfabetizazioa. Herriaren jardueraren industrialari egokitutako teknikak irakastea zen helburua. Unibertsitarioak ez zituen behar, herriko fabriketarako langile kualifikatuak baizik. Hala ere, ez berak, ezta guk ere, ez genekien noraino helduko ginatkeen. Gure hasierako helburua enpresa egitea zen. Hori bai, bere



ARIZMENDIARRIETA ENPRESA GIZON

“Ez zen ohiko enpresarioa, batez ere liderra zen. Egitasmoen bultzatzailea. Pertsonen bitartez, egitasmoak eta enpresak bultzatu zituen”

MCC-REN BALOREAK

“Elkartasunean bizitzea, joku demokratikoa, etengabeko heziketa... Horiek dira gure balio nagusiak eta neurri batean edo bestean indarrean diraute”

IBAR AHAZTUA

“Erakundeak gure ibarrarekiko ximur samarrak izan dira. Gure metropoli hau, garapen teknologikoari eta egitasmoak bultzatzeko ahalmenari dagokionez, lehen edo bigarrena da”

OSASUN PUBLIKOA

“Osakidetza eskerrak eman behar dizkiot. Osasun kontuan oso aurreratuta gaude. Mundu osoan ez da egongo gurea bezalako sistema aurreraturik”



ENEKO AZKARATE

egitasmoak herri baten gauzatu ziren. Hemen gauzatutako kooperatiba mugimendua ezinezkoa izango litzateke hiri handian. Arizmendiarrietak marketing elementala egiten zuen: behar bakoitzak bere erantzunak behar zituen. Hasieran erantzun lokala izan zen. Denborarekin, nazioartera zabaldu ziren beharrak eta erantzunak.

Gaur egungo MCCn bizirik dirau Arizmendiarrietaren izpirituak?

Ez dakit, bada. Hemen kultura bat barneratu dugu. Mugimendu honen sorrerako kultura baloreak gaur egun ez ditu inork zalantzan jartzen. Elkartasunean bizitzea, joko demokratikoa, etengabeko heziketa... Horiek dira gure balio nagusiak eta, neurri baten edo bestean, indarrean diraute.

Globalizazioaren mundu berri hone-tan, behar-beharrezkoa ikusten duzu kooperatibak gainerako enpresekiko ezberdintzen dituzten balore kooperatiboak suspertzea?

Arizmendiarrietak gerra osteko gizarte erdi industrializatu batean eta herri baten gauzatu zituen bere ideiak, enpresarioek irabazien zati bat langileen artean ez banatzeko ohiturari erantzun moduan. Ideia horrekin ekin zion. Gaur egun, oster, bere ideiak eguneratzeko ahalmena izango luke. Ez daukat dudarik. Globalizazioaren kontu honekin ere jarre-ra aldakorra izango luke. Gaur egungo MCCren garapena bitakoa da: batetik, kooperatiba nukleoa eta, bestetik, tokian tokiko kapital sozietateak. Azken hauei zer berritasun, zer parte hartze modu, edo zer filosofia eranstean diegun da arazoa. Baina, era honetako arazoa izan zuen Arizmendiarrietak herriko enpresekin, Unión Cerrajerarekin, esate baterako.

Politikari garrantzia ematen zion?

Beno, bai, politikarekiko ardurarik bazuen, baina gogoan daukat zer esaten zigun: “Zuek ez izan presarik politikan sartzeko, zeren 1936ko Lizarrako Estatutua,

gutxienez, badator”. Bestalde, estatutua-ren eta autogobernuaren aldekoa zen, baina independentzian-eta zalantza handiagoak zituen, ez zuen horretan hainbeste sinisten. Herri txikia izanik, inguruko beharra genuela uste zuen. Nik esango nuke euskalduna zela, baina ez abertzalea.

Debagoienetik diru mordoa irteten da Gipuzkoako Foru Aldundira, baina bueltan oso diru gutxi dator. Zenbateraino ari da deskapitalizatzen gure bailara?

Itxaropeneko tunelaren, hau da, Olan-dixoko tunelaren gaineko artikulua idazteko gogoa daukat... Urteetan, ibar ahaztua izan da gure hau. Kooperatibei esker, garapena etorri da, baina garapen horrek baditu bere mugak, azpiegiturak behar-beharrezkoak dira-eta. Erakundeak gure ibarrarekiko ximur samarrak izan direla esango nuke. Gure metropoli hau, demografiari dagokionez, laugarrena da Gipuzkoan, baina garapen teknologikoari eta egitasmoak bultzatzeko ahalmenari begiratu-zer, lehenak edo bigarrenak gara.

Jesus, osasun aldetik zelan?

Orain ondo. Burua ondo daukat eta... Giltzurruna transplantatu zidaten eta apurka-apurka hobera egin dut. Ni neu ez naiz organo emaila, baina prest nago izateko. Kontua da nire organoek zer edo zertarako balioko ote duten (barre). Borondatea, bai, badaukat. Bizitza zeharo aldatu zait ebakuntza honi esker. Niretako salbazioa izan da. 21 urtean giltzurrun bakarrarekin bizi izan naiz. Azkenengo urteetan dialisia egiten jardun dut eta orain zorte handia eduki dut. 72 urterekin, giltzurruna aldatzeko zeudenen artean, neu nintzen zaharrena. Azkenean, Gurutzetako ospitalean egin zidaten ebakuntza. Oso pozik nago. Eta Osakidetza eskerrak ematea baino besterik ez daukat. Oso esperientzia ona izan da. Ez dakigu eskuartean zer daukagun. Osasun kontuan oso aurreratuta gaude. Mundu osoan ez da egongo gurea bezalako sistema aurreraturik.



ENEKO AZKARATE

“Independentzia lortzeko kostuak ondo neurtu behar dira”

Enpresario talde batek lehendakariari esan dio atzean uzteko proiektu soberanista, bestela “Espainarik eza” garesti irtengo zaigulako euskaldunoi. Ados?

Independentziak edo independentziarik ezak garrantzia erlatiboa dauka. Arazoa da independentziara ailegatzeko dauden zailtasunak, eta horrelako esfortzu batek orain arte egindako guztia galtzea merezi duen. Argi dago, independentzia lortuz gero, gure

herri nortasuna indartu egingo litzatekeela, baina independentzia lortzeko kostuak ondo neurtu beharko lirateke. Beste kontu bat autodeterminazio eskubidea da. Horren alde nago, bide baketsuak erabiliz lortzen bada. Edozelan ere, erreferendum baten, %51 ez litzateke nahikoa izango, bi herenen aldeko emaitza beharko litzateke. Eta indarkeriak ez garamatza inora. Zer-gatik? Estatuak bere gain har dezakeelako.

Gainera, zelan pentsa dezakegu Iparraldean eta Nafarroan, independentziaren aldeko jarrerak duten indarrarekin, gaur egun independentzia lor dezakegunik? Hori utopia hutsa da. Gauzak beste modu baten aztertu behar dira eta poliki-poliki urratsak ematen joan. Indarkeria eta presa barik jokatut behar da. Bestalde, argi daukat Estatua sakabanatzen laga baino lehen, beste gerra bat hasiko luketela.

Zabala-Muruamendiaraz Lau t'erdian


Eskoriatzarra eta antzuolarra aurrez aurre domekan, Bergarako Udal Pilotalekuan

Bigarren mailako Lau t'erdiko Txapelketaren barruan, Edorta Zabala eta Iker Muruamendiaraz pilotarien arteko partidua izango da domekan, Bergaran. Irabazlea finalerdietarako sailkatuko da.

Muruamendiarazek eta Zabalak eguaztenean egin zuten pilota aukeraketa Bergarako pilotalekuan. Iker Muruamendiarazek adierazi zigunez, "eroso jokatzeko moduko pilotak komeni zaizkit, ez oso biziak, ezta astunak ere". Lehenbiziko kanporaketan, Ikerrek Del Rey kanporatu zuen, Najeran (22-16). Azken hiru asteetan ez du partidurik jokatu: "Ondo entrenatu naiz, baina lehiatzea guztiz ezberdina da. Ez dakit domekan zelan erantzungo dudana. Zabala arerio gogorra izango da".

Edorta Zabalak Errandonea II.a eta Aio kanporatu ditu orain arte. Haren hitzetan: "Niretako partidu zaila izango da, Iker ni baino gazteagoa delako. Ez zait komeni partidua luze joatea".

Domekako jaialdia 17:00etan hasiko da. Lehenengo partiduan, Ariznabarretak eta Mendiak González eta Sukiaren kontra jokatu dute, eta azken partiduan, Haritz-Bernal eta García-Fuertes bikoteak izango dira aurrez aurre.



Edorta Zabala eta Iker Muruamendiaraz eguazteneko pilota aukeraketan, Bergarako Udal Pilotalekuan.

EDU MENDIBIL

DV TXAPELKETA GAUR ELGETAN

Bestalde, DV pilota txapelketaren barruan, Xabier Ubera elgetarrak eta Haritz Laskurain plazentziarrak Amari-Atutxa bikotearen aurka jokatu dute

gaur gauean, Elgetan, 21:30ean. Ubera txapela irabazteko fabritoen artean dago, adituen arabera. Iazko ekitaldian, finalera iritsi zen elgetarra. Gaurko jaialdia hasteko, gazte mailako partidu

bat jokatu du Elgetako pilotalekuan: Berasaluze-Prado eta Sáez-Rico bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

XAKEA/OÑATI

Datorren zapatuan, abenduak 1, xake azkarreko txapelketa jokatu da Oñatiko Olakua dorretxean, gaztelekuan. Suitzar erara (sei itzulitara) jokatu da txapelketa eta jokalaririk bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte. Irabazleak 28.000 pezetak eskuratuko ditu eta beste hainbat sari banatu dituzte. Izena ematea gaztelekuan bertan egin daiteke, azaroaren 29ra arte. Argibideak 943 71 60 94 telefono zenbakian izango dituzue.

TOPAKETA/ARETXABALETA

Kirol politikari buruzko topaketa izango da abenduaren 13an, Aretxabaleko Otolara jauregian. Aztertu beharreko gaia honako hau izango da: kirol elkartegintzaren oraina eta geroa. Debagoienekoendako matrikulak 6.000 pezetak balio du (bazkaria barne). Izena emateko eta argibideetarako, jo Aretxabaleko kirol zerbitzura (943 71 26 28).

FUTBOLA/ARRASATE

Mondra futbol taldeak Mendaroko Kilimon taldearen aurka jokatu du zapatuan Atxabalpen, 15:30ean hasita. Arrasatearrak nahiko gaizki dabilta ligan: azken jardunaldian 4-2 galdu zuten Elgoibarren aurka Mintxetan, eta 13. postuan dira lehen erregionaleko sailkapenean. Biharko partidua berebiziko garrantzia dauka.

UDAK bigarren partidua galdu zuen

Ibarreko derbyan Bergara Aloñari nagusitu zitzaion (1-0)

UDA futbol taldeak denboraldiko bigarren partidua galdu zuen azken jardunaldian Pasajesen aurka (3-0). Hala ere, aretxabaletarrak sailkapeneko lehen postuan dira oraindik. Domekan, Hondarribia taldea bisitari izango dute Ibarren, 16:30ean.

Enrique Nietoren taldeak ez zuen partidu onik egin Molinako futbol zelaian, eta aretxabaletarrak esku hutsik bueltatu ziren Pasaia-tik. Pixkanaka-pixkanaka sailkapeneko goiko aldeko taldeen arteko aldea gutxituz doa. Joan den aste bukaerako jardunaldiaren ondoren, aretxabaletarrak liderrak ditugu, 26 punturekin. Atzetik, Tolosa eta Pasajes (25 puntu bakoitzak) eta Zarautz (24) taldeak dira sailkapenean. Domekan Ibarren hartuko duten Hondarribia taldea bederatzigarren dago.



Zapatuan Aloñaren aurka zelaira irten zen Bergarako hamaikakoa.

E.M.

DERBYA BERGARARENAKO

Bestalde, joan den zapatuko derbyan, Bergarak 1-0 irabazi zion Aloña Mendi Agorrosinen. Mahoneroak merezimendu osoz

gailendu ziren. Ortiz aurrelariak egin zuen partiduko gol bakarra, lehen zatian.

E.M.

Aloña Mendi eskubaloit taldea, lidertzaren bila

Aloña Mendi eskubaloit taldeak Ormaiztegiaren aurka jokatu du zapatuan Zubikoa kiroldegian, 18:00etan. Oñatiarrak Euskadiko txapelketako liderrak ditugu, Barakaldo eta Zarautz taldeekin berdinduta.

Txus Aranburuk zuzentzen duen taldeak 26na berdindu zuen azken jardunaldian Gasteizen, Axis UPV taldearen aurka. Partidua amaitzeko 15 minutu falta zirela, Aloñak sei goleko aldea kontratu zuen (19-13). Hala ere, oñatiarrek ez zuten etsi eta aurrea hartu zuten: 10 segundoren faltan gol bategatik irabazten zuten (25-26), baina azken momentuan gasteiztarrek berdinketaren gola egin zuten. Hala ere, Aranburu entrenatzailea pozik zegoen emaitzarekin, markagailuko gorabeherak kontuan izanik.

Honako hauek jokatu zuten Gasteizen: Igor Biain, Jon Zelaia (3 gol), Eneko González (5), Unai Perosterena (3), Igor Korkostegi, Eleder Albizu (7 gol), Rafa Zulueta (5) –hasierakoak–, Erik Fuente (2 gol), Jokin Astigarraga (gol bat), Francisco Benito, Xabi Guri-di eta Pablo García.

HIRU TALDE BERTINDUTA

Aloña Mendik zazpi partidu jokatu ditu orain arte. Bost partidu irabazi, bat berdindu eta bakarra galdu du, bigarren jardunaldian Ereintzaren kontrakoa, hain zuzen ere. Barakaldo eta Zarautz taldeekin berdinduta, lidertzan da Aloña. Barakaldok partidu bat gutxiago jokatu du. Aranbururen hitzetan, "partiduz partidu ikusiko da liga amaieran non egon gaitezkeen. Gure hurrengo helburua zapatuan Ormaiztegi irabaztea da".

E.M.

Podiuma

Imanol Elkoroberezibar | ATLETA GUTXITUA |

Imanol Elkoroberezibar bergararra (41 urte) bigarren sailkatu zen Behobia-Donostia lasterketan, oinezkoen gutxituen sailkapenean. Imanolek zortzi aldiz bukatu du aipatutako proba, eta joan zen astean bere markarik onena lortu zuen: ordubete, 29 minutu eta 55 segundo. Azken bi urteetan Kemen Euskal Herriko elbarri fisikoen kirol elkarte-an ari da Imanol. Domekan Donostiako maratoian izango da.

Gero eta zaharragoa eta gero eta marka hobea-
goak lortzen ari zara.

Bai, ardoa bezala, badi-
rudi urteekin hobetzen ari
naizela. 18 urterekin hasi
nintzen korrika eta nire
burua gero eta hobeto,
indartsuago ikusten dut.
Esperientziak ere zeriku-
sia izango du horretan.

Oso pozik nago Beho-
bia-Donostian nuen marka
hausteagatik. Irteeran
urduri samar nengoen,
podiumera igotzeko auke-
rak banituela ikusten nue-
lako. Korrika hasi eta lasai-
tuz joan nintzen. Behobia-
Donostia oso proba gogorra
da, gorabehera asko ditue-
lako, baina ez nuen mo-
mentu txarrik igaro eta
helmugan marka ona egi-
tea lortu nuen. Joan zen ur-
tearekiko hiru minututan
hobetu nuen marka.

**Noiz hasi zinen proba
gertatzen?**

Abuztu amaieran.
Egubakoitza eta zapatua
kenduta, egunero entre-
natzen naiz, korrika eta
gimnasia piskat eginez,
nire kontura. Hamar bat
kilometro egiten ditut



Imanol Elkoroberezibar 18 urterekin hasi zen atletismoan. E.M.

**“Oso pozik nago Behobia-Donostia proban
nuen denbora hobetzeagatik. Joan zen urtea-
rekiko hiru minututan hobetu nuen marka”**

**“Domekan Donostiako maratoian hartuko dut
parte, baina niretako maratoi erdia da
distantziarik egokiena”**

astebarruan egunero.
Domeketan, berriz, Jose-
ba Larrinaga aretxabale-
tarrarekin eta bere lagu-
nekin entrenatzen naiz.
Elkarrekin 20 kilometro
inguruko entrenamen-
duak egiten ditugu, Urku-
lu, Untzilla, Aramaio eta
Azkoaga inguruan, asko-
tan. Abuztuan hasi eta api-
rilerara arte ibiltzen naiz
korrikan entrenatzen.

**Domekan, Donostia-
ko maratoian hartuko
duzu parte. Zein distan-
tziatan ibiltzen zara gus-
torago?**

Hiru aldiz bukatu dut
Donostiako maratoia, bai-
na orain dela zazpi urte
oinean lesioa izan nuen
eta medikuek maratoirik
ez egiteko gomendatu zi-
duten. Domekan nire burua
ondo ikusten badut, proba

amaitzen ahaleginduko
naiz, baina bestela 20 kilo-
metro egitearekin konfor-
matzen naiz.

Niretako, maratoi erdia
distantzia egokiagoa da.
Denboraldian zehar, hiru
egiten ditut: Behobia-
Donostia azaroan, aben-
duan Gasteizeko maratoi
erdia eta apirilean Azkoitia-
Azpeitia. Orain Gasteizko
probarako entrenatzen ari
naiz. Han ere marka ona lor-
tzea da nire helburua.

**Azken bi denboral-
dian Kemen taldeare-
kin ari zara txapelkete-
tan. Zer moduz?**

Oso ondo. Elbarrituen
alde egiten duten lana
nabarmendu gura nuke.
Behobia-Donostian ere
eurek izaten dute elbarri-
tuen probaren ardura. Aur-
tengo ekitaldian, nire kate-
gorian, bost lagun ginen
eta, horretaz gain, aulki-
erroberan korritu zutenak
(40 lagun inguru) eta itsuak
ziren. Primeran tratatzen
gaituzte. Aurten ere aste-
bukaera osoa igaro genuen
Irungo hotel batean kon-
tzentratu. Eskertzekoa
da horrelako kirol elkarte
bat izatea.

**Bergarako Beti-Bus-
ti piraguismo taldean ere
ari zara aspalditik. Pira-
guarekin, errekan ala
itsasoan gusturago?**

Ni udaberri eta uda par-
tean ibiltzen naiz. Astebu-
kaerero joaten gara kos-
taldera piraguan ibiltzera
eta itsas zeharkaldiak ere
egiten ditugu, Saturrar-
an-Deba, Getaria-Donostia eta
Sokoa-Hondarribia, esate
baterako. Itsasoan ibiltzea
atsegin dut gehien. Hala
ere, Sella ibaiaren jaitsie-
ran ere parte hartu izan dut
azken hiru urteetan.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Jon Sagasta Futbolaria



Jon Sagasta Realeko kamisetarekin, 1967-68 denboraldian.

Lehen mailan jokatu zuen Realarekin.


Urterik onenak Leonesa taldean eman zituen.

Hogeita hamar urterekin utzi zuen futbola.

Mondragoeko futbol taldean hasi zenetik
talde askotan ibilitakoa da Sagasta. Lehen
mailan jokatzera ere iritsi zen Realarekin;
“Realak Puertollanon igoera lortu zuen
denboraldi hura Sansen eman nuen, baina
Elizondo entrenatzaileak 2. mailako txapelduna
erabakitzeke partidua jokatzeko deitu zidan.
Malagari irabazi genion, 1-2. Aranbarrik eta
biok sartu genituen golak. Hurrengo denboral-
dian, lehen mailan, partidu dezente jokatu
nituen, eta taldeak justu-justu eutsi zion maila-
ri. Valladoliden kontra promozioa jokatu behar
izan genuen”. Sagastak erdialdean jokutzen
zuen, eskumaldek, eta bere hitzetan, “Atotxan
oso ondo moldatzen ginen, batez ere zelaia
lokaztua zegoenean”.

Hala ere, bigarren denboraldian ez zuen
hainbeste jokatzetik izan. Realak utzita, Osasu-
narekin jokatu zuen: “Nafarrak errefortzu eske
etorri ziren 2. mailara igo ahal izateko. San
Andres taldeari irabazi genion berdinketa
hausteko partidua, Zaragozan, eta gol bat sartu
nuen”. Ondoren, soldadutzara deitu zuten.
Soldadutzan zegoela, El Ferrol taldean hasi zen,
2. mailan: “Kopa txapelketan lehen mailako
Betis eta Elche taldeak kanporatu genituen eta
Valentziaren kontra galdu genuen”. Logroñes,
Leonesa eta Ensidesa taldeetan ere jokatu zuen,
2. mailan: “Urterik onenak Leonen igaro nituen.
Han jokatu nuen ondoen”. Bere sasoiko jokala-
rien artetik, Pirri eta Gaztelu nabarmen-
ditu; “Apartekoak ziren”. Real Union, UDA eta
Mondra taldeetan jokatu zuen 30 urterekin
erretiratu zen arte: “Belauneko arazoak izan
nituen beti. Gaurko azterketa medikoak ez
nituzke gaudituko orduan”. /E. M.

**“Realak azken
igoera lortu zue-
nean, 2. mailako
txapelduna era-
bakitzeko parti-
dua irabazi
genion Malagari.
Aranbarrik eta
biok egin geni-
tuen golak”**



Jon Sagasta • Arrasate • 1947



Ritxar Fernández garaile Irungo krosean

Sasoi betean dagoela erakutsiz,
Aloña Mendi taldeko Ritxar Fer-
nández atleta oñatiarrak Irungo
krosaren III. ekitaldia irabazi zuen
domekan. Ibilbidea 8 kilometrokoa
zen eta Fernándezek 25 minutu eta 4
segundoko denbora egin zuen. Bere
atzetik, Realeko Alberto Revuelta
(25:15) eta Goierri taldeko Javier
Galindo (25:28) sailkatu ziren.
Kadete mailako proba (4.350 metro-
koa) Yerahi Varela oñatiarrak
irabazi zuen, 16 minutu eta 10
segundoko denborarekin.


RENAULT

MEGANE GAMA

Oraingo neguan, lau izarreko segurtasuna salneurri ezin hobean*.

(ABS, 4 aire-poltsa, larrialdietan balaztatzeko sistema, eta abar)



MEGANE BERLINA AUTHENTIQUE

1.4 16 V (95 ZP)


11.617,56 euro / 1.933.000 pezeta



MEGANE SCENIC AUTHENTIQUE DTi

(80 ZP)

14.820,96 euro / 2.466.000 pezeta



MEGANE COUPE EXPRESSION

1.4 16 V (95 ZP)

12.230,60 euro / 2.035.000 pezeta

*60 hilabeterako finantzaketa eta lau kuota doan. 2002ko apirilera arte goza ezazu zure Megane autoaz euro bakarra ordaindu barik.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **Bergara**. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **Arrasate**. Tel.: 943 71 24 72



Goienka2a

Egubakoitza / 2001ko azaroaren 23a


Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren
23tik 30era

EUSKAL IRUDIGILEEN ERAKUSKETA Arrasateko Monterron Kultura Etxean abenduaren 2ra arte

Abenduaren 2ra arte, Euskal Herriko punta-puntako ilustratzaile batzuen lana ikusteko aukera izango dugu. Izan ere, Galtzagorri elkarte donostiarrak euskal ilustratzaileen inguruko erakusketa ibiltaria antolatu du, eta Arrasateko liburutegiaren ekimenez, erakusketa hori Debagoienara ekarri ahal izan da. Hamasei marrazkilariren lanen aukeraketa dago ikusgai Monterronen, Arrasateko liburutegiaren egoitzan. Galtzagorri hainbat belaunalditako ilustratzaileen lana eta ibilbidea ezagutzeko aukera ematen digu erakusketa horretan: hamasei panel antolatu ditu, egile bakoitzeko bana; bertan, euren lanak eta orain arteko ibilbidea laburbiltzen duen testua aurkituko ditugu. Ume eta nerabeei zuzendutako liburuak ilustratu izan ohi dituzte erakusketako parte hartzaileek; hortaz, ume eta gaztetxoek gozatuko dute gehienbat erakusketarekin. Baina helduondako ere aproposa da, orain arte merezi duen ospea jaso ez duen lanbide bat sakonago ezagutzeko aukera eskaintzen digulako.



Marrazkilariak, protagonista

EUSKAL IRUDIGILE ONENETARIKO BATZUEN LANA ETA HISTORIA EZAGUTZEKO AUKERA DUGU, ARRASATEKO ERAKUSKETA BATI ESKER

Irudiak dira Arrasateko Monterron jauregian ikusgai dagoen erakusketako protagonistak. Euskal ilustratzaileen Aretoa dago han zabalik, abenduaren 2ra bitartean. Han, ume eta nerabeei zuzendutako literaturarako marrazten duten marrazkilari onenetariko batzuen lanak eta historia ezagutzeko aukera dugu.

Euskal Herriko hamasei irudigile ari dira erakusketa ibiltari horretan parte hartzen. Horretarako, euren lan batzuk aukeratu eta erakusketarako utzi dituzte; horien ondoan, egile bakoitzaren ibilbidearen gaineko informazioa irakur daiteke. Hormetan eskegitako irudiez gain, ilustratzaile horien lanez hornitutako komiki, liburu eta aldizkariak ikus daitezke.

Galtzagorri elkarateak antolatu du erakusketa ibiltari hori. Elkarate horrek, sortu zenetik, 1990etik, hona, euskal ume eta gaztetxoen literaturaren sustapena izan du helburu, azken batean, literatura maite duen taldea da-eta. Areto horren bitartez lortu gura duten helburua hau da, euren esanetan: "Euskal ilustratzaileen eta haien lanen berri eman gura dugu, ilustrazioak literaturan duen funtzioa sakontzeko aukerak eskaini eta ilustrazioaren garapena historian zehar ezagutu". Baina, bestalde, irudigilearen lanari ere omenaldi antzeko bat ere bada erakusketa: "Irudiz jositako munduan bizi bagara ere, onartu egin behar da gaur egun ilustrazioak ez duela mende honen hasieran zuen sonarik. Garai hartan marrazkilariak zuten ospea galdu egin da, eta oraingoz, ez da berreskuratu", dio elkarate literaturazaleak. Honako Aretoa aukera ona izan daiteke, hortaz, ospe hori hein batean berreskuratzeko.

HAINBAT BELAUNALDI

Parte hartzaileen artean, izen batzuk eza-gunagoak egingo zaizkio publikoari bes-

teak baino. Horrek ere badu bere azalpena: izan ere, ilustrazioaren historia eza-gutarazteko, belaunaldi desberdinetako marrazkilarien lanak aukeratu ditu Galtzagorri. Adibidez, Asun Balzola bezalako aitzindari baten lanarekin orpo orpo, 30 urte inguruko irudigile gazteen marrazkiak erakutsi dituzte. Asun Balzola, José Belmonte, Javier Erostarbe (debagoien-darra), Belén Lucas, Mattin, Pedro Osés, Tellaetxe Isusi, Mikel Valverde, Agurtzane Villate, Jon Zabaleta, Elena Odriozola, Jokin Mitxelena, Luis Alonso, Angel Domínguez, Jesús Lucas, Juan Carlos Egillor eta Montxo dira erakusketako parte hartzaileak.

PIZGARRIAK

Garai desberdinetan hezi diren ilustratzaileen artean badago desberdintasunik: "Hasieran, irudigile heldu gehienak auto-didaktak ziren edo Arte eta Ofizio eskolaren baten ikasi zuten. Leioako Arte Ederretako Fakultatea sortu zenetik, 1978an, ordea, gazte gehienak Arte Ederretan lizentziatuak dira", diote elkaratekoek. Urteotan zehar, jarduera horrek izan du bestelako pizgarriak: "Beharbada, irudigile hauen bilakaera gehien bultzatu duena, Arte Ederretako Fakultatea sortu izanarekin batera, 70eko hamarkadaren bukaeran eta 80koaren hasieran euskal argitalgintzaren indartzea izan da, aurretik ez zelako ia-ia Euskal Herrian umeendako liburuak euskaraz kaleratzen zituen argitaletxerik", azaldu digu Galtzagorri.

Bestalde, marrazkilaria bera ere garai berrietara egokitu behar izan da. Hortaz, gaur egun, marrazkilari gehienek jardue- ra desberdinak egiten dituzte, liburuak ilustratzeaz gain: diseinu grafikoan, komiki-gintzan, kazetaritza grafikoan edo irakaskuntzan lan egiten dute.

ADIN GUZTIETARAKO

Batik bat umei zuzendutako erakusketa da, baina ez bakarrik eurei. Asteburu eta



IKER BARANDIARAN

Hamasei irudigileren hainbat lan daude ikusgai Arrasateko Monterron jauregian.

jai egunetan, goizez zein arratsaldez bisita daiteke, eta lan egunetan, bakarrik arratsaldez. Gainera, azaroaren 30ean, ilustrazioa eta sexismoaren gaineko hitzaldia

eskainiko du Teresa Durán adituak, 18:30ean.

IKER BARANDIARAN/LEIRE KORTABARRIA

Oñatiar bat erakusketan

Javier Erostarbe oñatiarra da erakusketan parte hartzen ari diren marrazkilarietako bat. Taldeko beteranoetarikoa bat dugu debagoiendar hau.

Gazte-gaztetandik datorkio marrazkiarekiko zaletasuna; gerora, zaletasun hori ofizio moduan hartu zuen: "Hasieran, jolas moduan marrazten nuen; gero, Arte Ederrak ikasi nituen. Halako baten, liburu bat ilustratu nezan deitu zidaten; gero beste bat etorri zen, eta beste bat..."

Urteak joan ahala, mordoska bat liburu ilustratu ditu oñatiar- rrak. Aurren, beste bi proiektu ditu arlo horretan: Ibaizabal argitaletxeak aterako duen umeendako liburu bat, alde batetik; eta Bergarako Udalak dagoeneko inprimategian duen bilduma bat, *Ume Txikientzako Kantu eta Jolasak*.

Dena dela, marrazkilari debagoiendarrek "mugatu" samar ikusten du argitaletxeekin lana; bere esanetan, "askotan, marrazkilariak ate joka joan beharra du". Hori dela eta, Javierrek publizitatean edo diseinu grafikoan jarduten du batik bat gaur egun.

Arlo baten zein bestean lan egin, Javierrek bere estiloari eusten dio: "Errealista bezala definituko nuke; baina, umei zuzendutako irudietan, marrazki esajeratuagoak egiteko joera hartu dut azken urteotan. Nire estiloak eboluzioa izan du".

Zelakoa izan behar da umei zuzendutako irudi ona?

Mikel Valverde

Ez dago alde handirik ume edo gazte bati zein heldu bati zuzendutako ilustrazioaren artean: ilustrazioa ona edo txarra da. Ona izan dadin, oreka, proportzioa... behar ditu. Liburua ilustratzen ari banaiz, irudiak ezin dira larregiko inpaktanteak izan, eta istorioa- rengatik ere ezin dira aldentu. Hori bai, umeendako marrazten ari naizenean, euren gana agudoago hurbiltzeko, umorea erabiltzen dut, eta istorioa tristea bada, gutxienez, grazia apur bat.

Jokin Mitxelena

Irudi onena errealista dela esaten badut, Lionniren ilustrazio ia abstraktuak erakutsiko dizkidate; kontrakoa badiot, Ruano edo Buchholz-en marrazki oso errealistak. Konkreituak agian? baina azken egile horien irudiak ametsen ebokazioz beterik ditut. Fantastikoak, orduan. Eta Janosch-ek erabat mundu honetako egoerak jartzen dizkigu... Hobe irudia ikusi eta guk eta umeek gustukoa badugu, zergatik den galdetzea!

Montxo

Irudi on batek ondo komunika- tu behar du, batez ere umei edo gaztetxoei zuzendua dagoenean. Hori da bere ezaugarri nagusia. Umeen aurrean marrazten ari naizenean, kontakizun bati jarraituaz, umeak ipuin barruan sartzen saiatzen naiz, hau da, euren inplikazioa lortzen. Liburua ilustratzen ari banaiz, jakina, testuarekin batera egin beharko dut lan; hala ere, ume txikiendako istorioak sinpleak direnez, irudia testua baino garrantzitsuagoa da.

TERESA DURÁN / UME ETA GAZTE LITERATURAN ADITUA

"Harry Potter eredu sinesgarria da"

Teresa Durán aditu katalu- niarrak "Él y ella: sociedad gráfica anónima: el sexis- mo en la ilustración" hitzaldia emango du azaroaren 30ean.

Zelan azter daiteke sexismoa marrazkigintzan?

Gure garaiko lanak aukeratuz, eta errealistak izan daitezela. Ezin ditugu tradizio literarioko ipuin klasikoak sexismoaren ikuspuntu- tik baloratu.

Zein izan da emakumezko heroien papera?

1965etik 75era hasi ziren pra- kak zeramatzaten lehenengo ema-

kumezko protagonistak agertzen. Ordura arte, gehienek gonak zera- matzaten. 90eko hamarkadan, idazleek hala erabakita, iniziatiba, jakituria eta balio handiko ema- kumezko protagonista gehiago dago, gizonezkoak baino; marraz- kietan ere bai, idazleen atzetik ibi- li behar zuelako marrazkilariak. Hori da Harry Potter pertsonaiaren arra- kastaren gako bat: gizonezko ere- du nahiko sinesgarria da. Izan ere, lotsatia da, ziurtasun barikoa... hitz baten esateko, egiazko pertsona eta gizonezkoa da.

Irudiak testua baino era- gingarriagoak dira estereoti-

poak finkatzerako orduan?

Bai, konkretuagoak direlako; nobela bat irakurtzerakoan, ez dakigu zein den gaizkilea, baina komiki baten, berehala antzema- ten diogu. Sexu araberako rolean, gauza bera gertatzen da.

Estereotipo horiek ager- tzen jarraitzen dute?

Gaur egun, argitaletxe gehie- nek asko zaintzen dute alderdi hori, hezkuntza bokazio handia dutelako. Hala ere, argitaletxe txi- kiagoek, hainbeste baliabide ez dutenek, sexu araberako estereoi- tipoak erabiltzen jarraitzen dute./L.K.

KRONIKA/ HIM ETA OOOMPH! JAM ARETOAN

Hau hotza!

HIM GOGO GUTXIREKIN ARITU ZEN BERGARAN

HIM finlandiarrek jarraitzaile asko dituzte geurean, eta formal-formal joan ziren guztiak aldeztu aurretik, Jam aretoan izango zen kontzerturako sarrerak erostera. Hitzorduek merezi zuen; hala ematen zuen behintzat. Ville Valo karismadunak eta bere mutilek (oraingoz, behintzat, bera baita haien lide-rra eta, gustatu ala ez, entzule eta zale berri asko berari esker erakarri ditu talde-ak) euren disko berria, Deep Shadows and Brilliant Highlights, aurkeztera zetozen. Pri-merako aukera abesti berriak zuzenean entzun eta zaharrekin gozatzeko.

SOINU ALDETIK

Deep Shadows and Brilliant Highlightse-kin, komertzialtasun handiago baten alde-ko apustua egin du HIMek. Eta jokaldia ondo irten zaio. Diskoa ona da, nahiz eta ez den aurrekoen mailakoa. Baina tira, oso ona da, bai. Bikaina, abesti batzuetan: hor dugu, adibidez, *Salt in our Wounds*.

Diskotik zuzenerako saltoa oso ondo egin zuten finlandiarrek, ohi duten beza-la; hori onartu beharra dago. Soinu alde-tik, hortaz, primeran. Ville Valoren ahotsa bikain mugitzen da iluntasunaren eta erro-mantizismoaren lurraldeetan, rock gotikoari dagokion bezala. Eta aipamen berezia merezi dute, gainera, musikariak; zorionez, Valok ez zuen euren lana itzalpean utzi. Linde gitarra jotzailearen -gitarra soinu zorrotz horiek...- eta Gas Lipstick bateria jotzailearen lana bereziki azpimarratu beharra dago.

EZ DA NAHIKOA

Teknikoki, oso ondo. Bai, baina kontzertu bat soinu ona baino askoz gehiago da. Jen-deak bizi egin behar du kontzertua. Eta, egu-bakoitzean, ez zen horrelakorik gertatu.

Hitz gutxitan esateko, inoiz baino gehi-ago sumatu zitzaion boskoteari lurralde hotz batetik datorrela. Hoztasuna, horixe izan zen

Kontzertu bat soinu ona baino askoz gehiago da: jendeak bizi egin behar du kontzertua

agertokian erakutsi zuten jarrera. Eta, Ville Valori espektakulua zenbateraino gustatzen zaion jakinda (noski, bera protagonista den heinean), harrigarria da.

HIMek ez zuen lortu —edo ez zuen gura izan, batek daki— publikoarekin konektatzea, nahiz eta aretoa bete-bete-egon. Ez zuten lortu zenbaterainoko tal-de ona diren erakustea, ez eta euren jarrai-tzaileak ondo aseta uztea. Ederra desilu-sioa. Horrelako jarrera ikusita, jendeak ere ez zuen larregizko erantzunik erakutsi, nahiz eta disko berriko eta aurrekoetako abesti zirrargarri, eder, ilun, erromantiko asko jo eta abestu zituzten (hori bai, aurreko dis-koak ez zituzten jarraitzaileek gura bezain-bat jo... bigarren bildumatik, Razorblade Romancetik, lau bat besterik ez). Agerto-ki ondo-ondoan zeuden jarraitzaileek bes-terik ez zuten mugitzeko gogorik eraku-tsi; entzulegoaren gainerako zatiak hori-xe egin zuen batik bat, entzun.

TELONEROAK, OSO ONDO

nfernuko maiestatea inoiz baino handita-sun gutxiagoarekin etorri zen Bergarara. Askoz gogotsuago aritu ziren Ooomph! ale-maniarrak, teloneroak, Rammsteinen antze-ko doinuekin. Hauek, behintzat, zuten guz-tia eman zuten.

LEIRE KORTABARRIA

LITERATURA/ AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

EIDER ARZELUS / LEHIAKETAREN ARDURADUNA

“Gutun originalak saritzen dira gehien”

Eider Arzelus Jarduneko, Ber-garako euskara elkarteko, kultura dinamizatzailea da. Aurten, berak darama Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketaren ardura. Euskal Herriko idazketa lehiaketen artean, gero eta ezagu-nago bihurtzen ari da Jardunek urte-ro-urtero antolatzen duen hau.

Zeinek har dezake parte?

1987an edo lehenago jaiotako edozei-nek. Gehienez ere bi orrialdeko gutunak onar-tuko ditugu. Lana eta hiru kopia Jarduneko egoitzara, Errotalde jauregira, bidali behar-ko dira urtarrilaren 9a baino lehenago; pos-ta elektronikoz ere bidal daitezke, jar-dun@topagunea.com helbidera. Irabazleak 450 euro jasoko ditu; bigarrenak, 240; ber-garar eta debagoiendar onenak, 150na; eta gazte saria Xabier Diaz de Zerioresen eskul-tura bat izango da.

Berritasunik badago?

Bai. Lehiaketak hamargarren aldia du, zerbaki borobila; bestalde, Goiena Komuni-kazio Zerbitzuak Kooperatibak urtebete egin-go du; hori dela eta, Goiena saria sortu da: lehenengo eta bigarrendako, Mondragon Hotelean afaria; lehenengoarendako, gainera, hoteleko suitean gau bat.

Zeintzuk izango dira epaileak?

Arantxa Urretabizkaia eta Jose Mari Velez de Mendizabal idazleak, Estitxu Fernandez bertsolaria eta iazko irabazlea, Ainara Eli-zondo. Gazte epaimahaia ere izango da.

Zein adineko jendeak hartzen du parte? Nongoak izaten dira? Eta ema-kumeak ala gizonezkoak dira gehie-nak?

Gehienak Gipuzkoa edo Bizkaikoak iza-ten dira. Adinari dagokionez, bereziki gaz-teek hartzen dute parte. Bestalde, azken urte-otan neskek idatzitako gutun gehiago jaso ditugu.



“Aurten, Goiena saria sortu da: lehenengoarendako, afaria eta suitean gau bat”

Zein motatako gutunak jasotzen dituzue, gehienbat?

Ezinezko harremanak islatzen dituzte-nak dira nagusi, tragikoak eta tristeak.

Eta zeintzuk saritzen dira gehien?

Topikoetatik ihes egiten dutenak, bene-tan originalak direnak.

Ausartagoak ote gara gutun bidez aurrez aurre baino?


Hala pentsa liteke, baina trebezia eta ausardia behar ditu batek bere sentimen-duak idatzi eta maite duen horri bidaltzeko. Saridunek jendaurrean irakurri beharko dituz-te gutunak sari banaketan, eta hori ere ez da trantze makala euren dako. /L.K.

NIREAUKERA

R. Azkargorta
BeArt-eko presidentea

Ez naiz larregiko zinemazalea, baina tarte honetan, asko gustatu zitzaidan film bat gomendatu gurako nuke. Zinemako klasikoa da, gainera: Stanley Kubrick-en *Senderos de Gloria*, 1957. urtekoa. Haria honakoa da: I. Mundu Gerran, frantziar armadak alemaniarren posizio bat hartzeko ahalegi-netan dihardu. Baina logistika arazo batzuk direla-eta, planak zapuztu egingo zaizkie, eta horren harira frantziar milizian sortuko diren arazoez gerra kontseilu bat eragingo dute. Teknika aldetik, zoragarria da filma; baina niri, daraman mezua-rengatik gustatu zitzaidan, bereziki, alegia, gerrari izugarrizko kritika egiten diola. Eta protagonisten lan bikaina dut gogoan, batez ere, Kirk Douglas-ena.

‘SENDEROS DE GLORIA’
Stanley Kubrick



L. K.

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

Liburua/ saiakera



EMAKUMEAK
EUSKAL HERRIAN

Teresa del Valle
Gaiak
140 orrialde

Liburua / esamoldeak



MANTXUT
MANTXUT?

Asisko Urmeneta
Argia
63 orrialde

DISKOA / kantautorea



GEORGES
BRASSENS
KANTARI

Anje Duhalde
Elkar-musika
14 abesti

Oraingo udazkenean, Georges Brassens poeta, idazle eta abeslari frantsesaren heriotzaren 20. urteurrena beteko da, eta Elkarlane-an-musika argitaletxeak Anje Duhalde-ren beste disko bat kaleratu du, *Georges Brassensen kantari* izenekoa. Lan horrek Anje Duhaldek moldatu eta interpretatu-tako Brassens-en 14 abesti jasotzen ditu, egilea omentzeko asmoz. Iaz, otsailean, Baionako Luna Negra aretoan zuzenean grabatu zen. Anje Duhalderen gitarra eta ahotsaz gain, Mathias López-en kontrabaxua eta Remi Gachi-ren gitarra ere entzun daitezke CD eta MC formatuetan kaleratu den lan honetan. Digi-pack formatu txukunean dator diskoa. Kanta batzuk aurretik ere argitaratuta dauden arren, omenaldi txukuna.

Azaroak 23-30

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ELGETA

► **La Garbo S.A.** antzeztuko du Markeliñe taldeak egubakoitzean, azaroak 23, Espaloia aretoan, 22:30ean.

ELORRIO

► **Kiki, Koko, Moko eta Flax** txatxi-pailazoan saioa domekan, azaroak 25, Arriola aretoan, 17:00etan.

MUSIKA

ARAMAIO

► **Parrokiako organo berrituaren inaugurazioa** asteburuan. Zapatuan, azaroak 24, Jose Enrique Ayarraren kontzertua parrokian, 20:00etan; domekan, azaroak 25, Bizente Goikoetxea abesbatzaren emanaldia parrokian, 12:00etan, Daniel Oyarzabal eta Floren Untzueta organo jotzaileekin. Víctor Mendialduari, herriko organo jotzaileari, omenaldia ere egingo diote aramaioarrek.

ARRASATE

► **Numen eta Suffering Down** taldeen kontzertua egubakoitzean, azaroak 23, Gaztetxean, 22:00etan.
► **Eraso!, Flyshit eta Kum** taldeen kontzertua zapatuan, azaroak 24, Gaztetxean, 22:00etan.
► **Mikel Telleria** kantautorearen emanaldia eguenean, azaroak 29, Itzala tabernan, 20:30ean, Kultur Errota egitasmoaren eskutik.

BERGARA

► **Bertso jaialdia:** Andoni Egaña, Ainhoa Agirreazaldegia, Joxe Agirre, Jesus Mari Irazu eta Mañukorta bertsolariek parte hartuko dute. Egubakoitzean, azaroak 23, Zabalotegin, 22:30ean.
► **Theory vs. Stimulus tour** egubakoitzean, azaroak 23, Jam aretoan, 00:00etan.
► **Quinteto Clásico de Jazz** taldearen kontzertua zapatuan, azaroak 24, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.
► **Señor No, Vicent Von Reverb & sus vaqueros eléctricos, Nuevo Catecismo Católico, Discípulos de Dionisos, Teen Dogs eta Javier Sun** zapatuan, azaroak 24, Jam aretoan, 22:00etan.
► **Mogwai eta Kid 606** egubakoitzean, azaroak 30, Jam aretoan, 21:00etan.

ELORRIO

► **De Dos En Blues Banden** emanaldia egubakoitzean, azaroak 23, Ateneon, 23:00etan, Arriolako XII. Jazz Blues jaialdian.
► **Antonio Serrano & Joshua Edelman Trio** taldea zapatuan, azaroak 24, Ateneoan, 23:00etan, Arriolako XII. Jazz Blues jaialdian.

ESKORIATZA

► **Santa Zeziliaren omenezko kontzertua** eskainiko du musika eskolako bandak zapatuan, azaroak 24, parrokian, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Euskal Irudigileak** erakusketa, Monterron jauregian, abenduaren 2ra arte. Egutero, 18:00etatik 20:00ak arte, eta asteburu eta jai egunetan, horrez gain, 12:00etatik 14:00ak arte izango da zabalik.

BERGARA

► **Peruko artisautza erakusketa eta salmenta** azaroaren 19tik, astelehena, azaroaren 25era arte, domeka, erretiratuen etxean, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
► **Jone Telleria eta Nemeth Zolánen** margolanak azaroaren 20tik abenduaren 2ra arte, kultura etxean.
► **Jose Antonio Laskurainen** margo erakusketa dago ikusgai La Caixako bulegoan.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Nagusiendako euskal dantza.** Egubakoitzero, musika eskolan, 19:15ean. Lehendik izena emanda zutenez gain, jende berria etor daiteke.
► **Garapen Pertsonala taldea.** Hilean bi aldiz batuko dira, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.
► **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izena ematea kultura etxean, 943 71 10 27 zenbakian.
► **Yogako hastapen ikastaroa.** Eguaztenetan eta egubakoitzetan, 10:00etan, edo martitzenetan eta egunetan, 20:30ean. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian jaso daitezke.

BERGARA

► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** izango da ekaina bitartean Zabalotegin. Argibideak: 943 76 19 17 edo 606 68 41 94.
► **Fandango eta Arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Gazteendako eta helduendako eskolak. 943 76 15 40.

► **Pintura ikastaroa** Beart elkarteak antolatuta. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. 656 72 44 49.
► **Heziketarako psikomotrizitate praktikan bi urteko ikastaroa** eskaintzen du UNEDek, 2002ko urtariletik aurrera. Argibideak gura izanez gero, deitu 943 76 90 33 telefonora.

ESKORIATZA

► **Amuska taldeak** antolatutako ikastaroak: ehoziria, larrua eta pintura oihal gainean, eskulanak eta pintura. 30 orduko ikastaroak. Argibide gehiagorako, deitu 943 71 46 88ra.

DEBAGOIENA

► **Begirale ikastaroa** Txatxilipurdi, Axtroki, Loramendi eta Laixan elkarteek antolatuta. 18 urtetik gorakoei dago zuzendua. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 54 46 telefonora.

DEIAK

ARAMAIO

► **Argazki Rallyko** sari banaketa ekitaldia izango da egubakoitzean,

azaroak 23, herriko kultura etxean, 20:00etan.

ARETXABALETA

► **Jose Maria Arizmendiarrieta museo-gelaren berrikuntza-lanen inaugurazioa** izango da eguenean, azaroak 29, Otxalaran, 12:00etan.
► **Jose Maria Arizmendiarrieta XV. Lehiaketako sari banaketa** eguenean, azaroak 29, Otxalaran, 17:00etan.

ARRASATE

► **Hutsik dauden etxebizitzaren** inkesta egiten ari dira Udala eta Astiker enpresa, eta 700 etxebizitzatara joko dute galdetegi bat betetzera. Zentsuaren etxebizitza galdetegiaren antzekoa da. Udalaren inkesta hori betetzea egokitzen zaien familiei eskatzen diete, mesedez, inkestatzaileak hartzea.
► **Jose Maria Arizmendiarrietaren omenezko meza** eguenean, azaroak 29, San Juan Bataiatzailearen elizan, 19:00etan. Goikobalu Abesbatzaren emanaldia ere izango da.
► **Amiantoak kaltetutako en azterketa eta indennizazioaren** inguruan hitzaldia egingo du CCOO sindikatuak astelehenean, azaroak 26, Monterronen, 18:00etan.
► **Él y ella: sociedad gráfica anónima (El sexismo en la ilustración)** hitzaldia egingo du Teresa Durán adituak egubakoitzean, azaroak 30, Monterronen, 18:30ean, udal liburutegiak antolatuta.
► **Bertsolari txapelketa nagusiko finalera joateko autobusa** antolatu du Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak. Donostian izango da finala, abenduaren 16an, domeka. Txartel arrunta 7.000 pezetan salduko da; prezioan, bidaia, bazkaria eta sarrera sartzen dira. Leku mugatuak daude. 943 71 21 17.

BERGARA

► **Debagoieneko historia geologikoa ezagutzeko** behatze-irteera antolatu du Pol-Pol mendi taldeak zaturako, azaroak 24. 943 76 48 51.
► **Ibarreko erretratu zaharrak** hasi da biltzen Jardun elkartea, datorren urteko egutegia prestatzeko. Laguntzeko interesa duzuenok, pasa zaitzte Kartzela Zaharreko bulegotik.

ESKORIATZA

► **Herriko umeendako eskulan tailerrak** egubakoitzean, azaroak 23, Luis Ezeiza ikastetxean, 16:30ean.
► **Bertso afaria** antolatu du Axtroki elkarteak azaroaren 24rako, zapatua. Imanol Lazkano, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsolariek hartuko dute parte. Toki-Alai tabernan, 21:30ean.
► **Mendi Astea** antolatu du Murruxio mendizale elkarteak. Hitzaldiak izango dira egutero, azaroaren 26tik 30era, euren egoitzan, 19:30ean.
► **Diapositiba emanaldia** izango da eguenean, azaroak 29, Axtrokiren eskutik. Kultura etxean, 19:00etan.



► MUSIKA

BENITO LERTXUNDIREN ERREZITALDIA ESKORIATZAN

Ibarrera etorriko da Benito Lertxundi kantautore oriotarra egubakoitz honetan. Eskoriatzan kontzertua emango du azaroaren 30ean, kiroldegian, 22:30ean. Txartelak 1.200 pezetan salduko dira kiroldegian bertan erosiz gero; aldeztu aurretiko salmentan, 200 pezeta merkeago. Hogeita hamar urte dira aurtien oriotarrak lehenengo disko luzea kaleratu zuela, eta ordutik hona, *Nere herriko neskatxa maite*, *Txori ttikia*, *Bizkaia maite*, *Primaderako liliak*, *Herri beheara*, *Oi Ama Euskal Herri* eta beste hainbat abesti ezagun eman ditu Lertxundik. Horiek eta abeslariaren beste hainbat doinu esanguratsu berriro entzuteko aukera paregabea dugu, hortaz, datorren asteburukoa.

Non: Eskoriatzako kiroldegian. **Noiz:** Egubakoitzean, azaroak 30. **Ordua:** 22:30. **Prezioa:** 1.200 txarteldegian.



OÑATI

► **Oñatiko VII. Xake Txapelketa azkarra** antolatu da abenduaren 1erako. Izenemate epea azaroaren 29an bukatuko da. Argibideetarako, deitu 943716094 telefonora.

► **Guraso Eskolan izena emateko epea** zabalik dago abenduaren 5era arte. Umezaroa, eskola porrota, anorexia eta bulimia, autoestimua eta beste hainbat gai landuko dituzte datorren ikasturtean.

JAIAK

ESKORIATZA

► **Gaztaina erre eguna** ospatuko dute Luis Ezeiza herri eskolako ikasle, irakasle eta aita-amek egubakoitzean, azaroak 23.

ZINEMA

GASTEIZ

► **Zinema Euskaraz** jardunaldiak antolatu ditu Bagare Euskal Tokiak. Lehenengo saioa eguenean, azaroak 29, izango da. *Liam* filma eskainiko da. Mikeldi zineman, 20:15. Sarrerak 400 pezetan salduko dituzte.

MUSEOAK

ESKORIATZA

► **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalgo, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Argibideetara-ko, deitu 943 71 54 53 telefonora.

LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi. Argibide gehiago, 943 71 47 46 telefonuan.

AZPEITIA

► **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza, 8. Astelehenetik eguba-koitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era.

DONOSTIA

► **Zientziaren kutxaespazioa.** Martitzenetik zaptura, 10:00etatik 18:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 18:00etara.

► **Zientzia eta teknikaren erakus-keta interaktibo iraunkorra.** Argibideetarako, deitu 943 30 82 11 zenbakira.

► **San Telmo museoa.** Zuloaga plaza, 1. Martitzenetik zaptura, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 14:00etara. Taldeendako bisitaldi gidatuak izaten dira aurretik txanda eskatuz gero. Argibideak, 943 42 49 70 telefonuan.

‘LA GARBO S.A.’ ANTZERKIA ELGETAN

Markeliñe antzerki taldeak saioa eskainiko du egubakoitz honetan, azaroak 23, Elgetako Espaloia aretoan. Hainbat sari jaso dituen *La Garbo S.A.* antzezlana jokatuko dute. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da, eta sarrerak 500 pezetan salduko dira.

Zinema

ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

Y tu mamá también
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

La maldición del escorpión de jade

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

The Score
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Spy Kids

Zapatua eta domeka: 17:00.

La habitación del hijo
Eguena zine-kluba, 20:00.

OÑATI

■ SANTA ANA

Los Otros
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Pokemon 3
Domeka: 17:00.

Infíel

Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Ni una palabra
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Juana la loca
Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR

■ HERRIKO ANTZOKIA

Lucía y el sexo
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

El emperador y sus locuras
Domeka: 16:30.

ELORRIO

■ ARRIOLA

Nadie es perfecto
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

GASTEIZ
